



ARGIA



*Trebiñu
Urduña
Ezkoze
Jeztaze*

*Villaverde Turtzioz
Petilla Aragoi*


Euskal Herriko mapa politikoaren paradoxak

» MIGRATZAILEAK GARBIKETA KOOPERATIBA SORTZERA DOAZ BILBON

» ELIANE RADIGUE: "SOINUA BIZITZA AUTONOMO GISA ULERTZEN DUT, ERRESPETATU BEHAR DENA"

» IRUÑEKO MUGIMENDU FEMINISTA BELDURRAREN DISKURTSOARI AURRE EGINEZ

Egunero lan berriak sareratzen ditugu
2.300 bideo baino gehiago ikusgai




Erreportajeak

Bost minutuko bideoak. Gai mamitsuak era argian azalduta.



Dokumentalak

Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpiztituluekin.




Web Telebistak

Euskal Herrian eta euskaraz egiten diren web telebista guztien biltokia.




Solasaldiak

Gai zehatzei buruzko eztabaidak, hitzaldiak eta mahai-inguruak, gogoetarako material gisa.



Film laburrak

Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.




Elkarrizketak

Zer esana eta pentsatua ematen duten pertsonekin solasean.



Ekitaldiak

Dantza, musika, antzerkia... askotariko emanaldiak klik batean.



Bideo herrikoiak

Euskal Herrian jendearen ekimenez egindako bideoen biltokia.

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Fauna publikoa
- 10 *Magdalenak*, neska bekatariak zigortzeko makinaren biktimak
- IRITZIAK**
- 17 Aiala Elorrieta Agirre
- 18 Jon Alonso
- 19 Ruben Sánchez Bakaikoa Itxaro Borda
- 20 Katixa Dolhare-Zaldunbide



Erasoen aurrean, biktimaren irudia hautsi eta "emakume aktibo, ahaldundu eta borrokalaria" sustatzen dute Iruñeko kolektibo feministek.*

ARGAZKILARIA: EKINKLIK

- 38 GORPUTZA
- 39 DENBORAREN MAKINA
- 40 BIZI BARATZEA
- 42 AZOKA
- 43 KOMUNITATEA
- 47 ARTEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGİ-KONTRA: LAURA BERRO
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO IRUDIA: JOSEBA LARRATXE

SAKONEAN

- 12 | Maria Jesus Intxausti: "Nagusi baten zeregina ez da aginduak ematea" / Danele Sarriugarte Mochales
- 22 | Enklabeak eta esklabeak: Bizimodu eta nortasun bitxiak / Mikel Asurmendi
- 28 | Migratzaileen Mbolo proiektu kooperatiboa Bilbon / Mikel Garcia
- 30 | Iruñeko mugimendu feminista: Jaiak plazeretik borrokatuz / Amaia Lekunberri Ansola
- 32 | Linda Burney: "Zapalkuntzaren historia australiar guztientzat da garrantzitsua" / Amaia Zabala Tolosa
- 36 | Euskararen Aldeko Plataforma sortu dute Erriberan / Ainhoa Bretos
- 44 | Eliane Radigue: "Egin nahi dudana musika soinutik harago doa" / Julia Eckhardt

ALDIZKARI HAU IRAKURRI OSTEAN, EMAN NORBAITI EDO UTZI LEKU PUBLIKO BATEAN. BILDUMAGILEA EZ BAZARA, NOSKI.

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA ARGIA JENDEAREN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOKI.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Gipuzkoako Foru Aldundia



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L.
Ametzagaiña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza.
Zuzendaria: Estibx Eizagirre.
Erredakzioa: Asier Gonzalez de San Pedro, Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Estibx Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Nahia Ibarzabal, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador.
Argazkilaria: Dani Blanco.
Produktzioa eta inprimaketa: Antza S.A.L.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza.

DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERTAN EGINEZ GERO.

Web garapena: Asier Iturralde.

Informatika: iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012.

ISSN: 0213-909X.

Batzorde parekidea: 72562 E.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria.
Tel.: 943 371545.

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa:
Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel.: 559 473163.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina.
31001 Iruñea. Tel.: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus

Harpidetzak: harpide@argia.eus

Erredakzioa: kazeta@argia.eus



PANORAMA

“Munduko festarik onenetan” ere torturatzen da

Sanferminak munduan parekorik ez duten festak direla azpimarratu du Iruñeko alkateak, azken egunetan egindako elkarriketa ugarietan. Baina, munduko jairik “onenetan” ere, 2018an, bizidunak torturatzen eta hiltzen dituzte, botere publikoaren baimenarekin. Plazan, ehunka lagunen aurrean, jaietan zentralitatea emanez. “Ondo pasa dezaten” langileek eta *señoritoek*. Zezenek ez baitute bozkatzeko irudian: Iruñeko Sanferminetan urtero torturatu eta hiltzen dituzten 48 zezenetako baten hilotza arrastaka ateratzen ari dira plazatik.

Argazkia: Aitor Garmendia - Tras los muros · Testua: Axier Lopez





“Nahi bada, ahal dira egiak sortu, baina ohitu zaitezte, egia bakarra egia judiziala da”

Fernando Grande
Marlaska, Espainiako Barne ministroa, torturei buruz



“Ohitu zaitezte botere anker, ustel, torturatzaile eta mendekatira. Haien egia gezurra da”

@VMatterfilm



“Egia judiziala? Nik gezur judiziala esango nuke. Zein sinesgarritasun du botere judizialak? Eta Guardia Zibila, hainbeste gezurren konplize”

@al12345



“Egia judiziala da Espainia Giza Eskubideen Europako Auzitegiak kondenatu duela, tortura salaketak ez ikertzeagatik. Hori da, Marlaskaren logika erabiliz, egia judizial bat”

Jorge del Cura



Brebetako azterketen bahiketa salatu du Seaskak

Argia

ARGAZKIA: EUSKAL IRRATIAK

13-14 urteko ikasleak dira kaltetuak, Piarres Larzabal, Xalbador, Manex Erdozaintzi Etxart eta Bernat Etxeparekoak. Brebetan Matematika eta Historia-Geografia euskaraz egiteko eskubidea lortu zuen Seaskak. 2017an, ofizialki halako eskubiderik ez bazuten ere Zientzietako azterketa euskaraz egin zuten. Errektoretzak ez zuen inolako oztoporik jarri. Seaskako 179 ikaslek gauza bera egin dute aurten, eta errektoretzak azterketak ez zuzentzeko agindua eman du.

Bi autobus joan ziren uztailaren 4an Baionatik Bordelera eta zenbait lagun errektoretzako atean kateatu ziren, diskriminazio linguistikoaren aurka. Haiek babestera joandako gurasoek koloretako kamisetak eraman zituzten. Tentsio-uneak

izan ziren poliziarekin. Eñaut Elozegi Xalbador kolegioko zuzendariaren hitzetan, “hau mespretxu seinale argia da guretzat. Sorpresa izan da azterketen kopiak bahitzea. Euskara ez dakiten bi inspektorek zuzendu dituzte zientzietako azterketak eta hona jin gara gure haserre adieraztera”.

Tourrean ere, protesta

Uztailaren 28an, Frantziako Tourreko etapa bat Senpere eta Ezpeleta artean egingo da eta Seaskak deia egin du euskal herritarrek Tourra balia dezaten haserre erakusteko. Seaskaren ustez, ez dago aurrekontu arazorik eta nahikoa irakasle dago azterketak zuzentzeko, kontua borondate politiko eza da. Federazioaren iritziz, Frantziaren helburua hizkuntzari prestigioa kentzea da, etxera baztertea, eta suntsitzea.

“Inbertitu diru apurtxo bat kulturean, ez guztia futboleant”

ITZIAR ITUÑO, AKTOREA

“Goenkale bukatu zenean esan ziguten oso produktu garestia zela; urteetan ibili ginen hor, eta bat-batean garestia zen. Garestia? Hori baino merkeagorik ezin da egin. Lehen egiten ziren telesail pare bat urtean zehar eta gero udan beste bizpahiru... Baina egun ez dago apustu finkorik. Inbertitu diru apurtxo bat kulturean, ez guztia futboleant, eta egin telesail potente bat. Hemen falta zaiguna inbertitu eta egitea da, ausartzea, baina horretarako kultura politika finko bat behar da eta uste dut ez dagoela”. **GEURIA.EUS (2018-07-04)**



FAUNA PUBLIKOA

"Obra baten efizientzia ez da zenbakitan bakarrik neurtzen. AHT da, Atxagak zioen moduan, Euskal Hiria eraikitzeke modua"

Jesus Loza, Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkaria (Radio Euskadi)

Nola justifikatu diru-xahuketa



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Europako Kontu Auzitegiak esan du, gutxi gorabehera, zentzugabekeria erraldoia dela Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa lotuko dituen AHTren proiektua, trena ez baita bideragarria izango kontuan hartuta obren kostua, espero den bidaiari kopurua -txikiegia honelako azpiegitura justifikatzeko-, Ipar Euskal Herriarekin eta Frantziako Estatuarekin falta-ko zaion konexioa eta beste hainbat arrazoi.

Eta hiztegiara jo dut "efiziente" hitzaren bila: "Lan edo funtzio bat behar bezala betetzen duena". Hum. Jesus Lozak esaten baldin badu efizientzia ez dela zenbakitan bakarrik neurtzen, esplikatuko beharko luke zer beste funtzio betetzen duen AHTk "behar bezala".

Baina esplikatuko beharko luke serio, zeren Radio Euskadin eman duen azalpen honek brometakoa dirudi. Eta gainera, fabore flakoa egiten dio Bernardo Atxagari, zeinak ez zuen Euskal Hiriaren ideia plazara atera, preseski, azpiegitura erraldoiei alfonbra gorria jartzeko, nahiz eta gero horretarako erabili nahi izan duten bai AHTren propagandistek, baita kontrako zenbaitek ere -ez ahaztu idazleari egin zioten eskratzea-.

"Hori egiten dute, ez dutelako irakurri", esplikatuko zion Atxagak Fermin Etxegoieni *Berandu baino lehen* telebista programan, etxe aurrean egin zioten protestaz ari zela. Antzeko problema da Lozarena ere, segur aski ez duela irakurri Atxagak zer idatzi zuen Euskal Hiriaz. Segur aski ez zaio asko inporta ere. Segur aski, puntu honetara iritsita, agintariak prest daude edozein justifikaziori heltzeko, kontua tren lasterra eraikitzen segitzea baita.

Gutiz segurua gauza bakarra da ordea: genero surrealistan besterik kabitzen ez den eskratxe haren mailan kolokatu behar dela Lozaren adierazpen hau. ■

**EZ
HANKA
EZ
BURU!**



**AITORIZEN DUT!
EGIA BAKARRA,
EGIA JUDIZIALA DA...!**



ADUR

ANALISIA



Natura eta eskola: gogoetarako hainbat apunte



Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

ARGAZKIA: EKO GUNEA

Baso-eskolei buruzko *Naturaz eta naturan ikastea* ikastaroan izan ginen, EHUren Udako Ikastaroen baitan. Hona hausnarketarako entresaka batzuk, entzundako hitzaldien artetik arrantzatutak:

- “Kanpo-espazioek erronka bermatu behar dute, arrisku maila bat. Umeak badu autoerregulaziorako gaitasuna, arriskuak neurtzeko, eta gainbabesten badugu aurrera egitea oztopatu diezaiogegu”, zioen Iñaki Larreak. Hezitzaileek beraiek ere helduon rola jarri zuten eztabaidagai: gure beldurrek ez dezatela mugatu haurraren jarduna; batzuetan kosta egiten zaigu ez ohartaraztea –“ez igo hor gora”–, baina beharbada behin esatearekin nahikoa da, haurrak berak konturatu beharko du, agian helduaren esaldiak izan behar du “beldurra niri ematen dit”...

- 20 ikastetxetako jolas-guneen ikerketa egin dute, eta ikasle ugariaren adierazpena izan da “kartzelan bezala sentitzen gara”. Espazio mugatuegiak, kontrolatuegiak, helduen begiradapean? Intimitate, askatasun eta bihurriketarako traba gehiegi?

- Berdegunez inguratzeak gure osasunean –ongizatean oro har– dituen onurak jakinak dira. Baina Jesus Ibarluzeak emandako datuen arabera, klase sozioe-

konomikoen arteko arrakala apaltzen ere laguntzen du, osasunaren ikuspegitik: heriotza-tasaren arrakala bikoiztu egiten da dirudunen eta txiroen artean, berdeguneetan bizi ez direnean.

- Madrilgo baso-eskola aurkeztu zute-nean galdera planteatu zuten publikotik: pribatua –eta garestia– izateak ez al ditu eskola pedagogikoki aurrerakoi hauek elitista bihurtzen, ez al dizkiote ateak ixten kulturantzatasunari eta aniztasun sozioekonomikoari? Hain juxtu, horregatik da interesgarria Ekoguneak Donostian duen baso-eskola proiektua: ikastetxe ahalik eta gehienetara iritsi nahi dute, eskola publikoan txertatu nahi dute baso-eskolaren filosofia, ez dadin izan gutxi batzuentzako aukera. Administrazioa inplikatu beharra ere azpimarratu zuten horretarako.

- Ez, baso-eskolan jarduteak ez du esan nahi egunero ikasleak hartu eta lekutan dagoen auskalo zein mendira eraman behar direnik. Norberaren herri edo hirian, ikastetxe inguruan dauden berdeguneak aprobetxatzea da gakoa. Eta egingarria dela frogatzeko, *EAEko baso-eskola potentzialen lehen hurbilketa* egin du Maialen Sistiagak: baso-eskola izateko beharrezkoak diren baldintzak betetzen dituzten berdeguneak identifikatu eta ikastetxe batetik 500 metro edo gutxiagora daudenak zerrendatu ditu mapa batean. Ikastetxe asko eta asko inguruan bertan baso-eskola egiteko modua badutela erakusten du mapak.

EKONOMIAREN TALAIAN

Onartu, AHT erokeria da



Juan Mari Arregi

Europako Kontu Auzitegiak txosten etsigarria zabaldu du Europako abiadura handiko trenbide sarearen inguruan (Euskal Herrian AHT, Frantzia TGV, Espainian AVE...). “Mosaiko ez eraginkor” gisa definitu du eta “engainu handi bat” dela dio: gailakostu ikaragarriak proiektuetan eta eraikuntzan; bezeroak erakartzeko helburuetan porrota; beste garraiobide batzuekin –aire bidezkoa esaterako– konektatzeko ezintasun erabatekoa... Kilometro bakoitzeko kostua 25 milioi eurokoa da. Hala, Euskal Y delakoak 7.000 milioi euro kostako luke, ADIFen aurreikuspenen oso gainetik. Hendaian barrena, Europako gainerako lurraldeekiko konexioa bazterturik dago jadanik. Bidaia faltan merkantzien garraioarekin orekatzeko ustezko asmoa bestalde, Gasteizen hainbestetan defendatu dutena, txosten ugari bota dute atzera.

Burugabekeria ekonomiko horren aurrean, ez al da erokeria AHTren ideia bera osotasunean? Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako nahiz Nafarroako gobernuetatik igaro diren arduradun politiko guztiek egin dute, modu batean edo bestean, orain Europako erakundeek ezbaian jarri duten erokeria horren alde. Enpresa pribatua izan balitz, bere arduradun guztiak kaleratuak izango lirateke dudarik gabe. Baina lau urterako politikariak direnez, burugabekeriak eta xahubide ekonomikoak jarraitzen du. Le-moizekin gauza bera gertatu zen.

Logikoa AHTren obrak gelditzea litzateke, auditoria neutrala egin eta ikusi, herritarren parte-hartzearekin, zer beste alternatiba egon daitekeen garraiobide sozial baterako. Gasteizko Gobernuak, gutxienez, erokeria hori onartu beharko luke, lanak gelditu eta eztabaida irekia sustatu. Beharrezkoa den eztabaida, baina herritarrei lapurtu izan zaiena.



MARISOL RAMIREZ / FOKU

Ongi etorri Bilbora

BILBO. Elkartasuna nagusi izan da joan den astean Bilbora heldu diren migratzaileekin, bidean diren pertsonekin. Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformak instituzioen erantzun eza salatu du eta beste hainbat elkarte eta herritarrekin antolatu egin dira etorri berriei jana eskaintzeko, arropa banatzeko edota etxeetan lotarako aterpea emateko.

“Azterketa aurretik eskura ematen zaizkie galderak”

Nahia Ibarzabal

@Nahialbarzabal

Roberto Sanchez, Marta Macho eta Manuel Martinez dira Osakidetzako iruzurra salatu duten profesionalak. Elkarrizketa egin diete *El Diario Norte*-n.

Beldurra

“Gure lankideek itsuarena egin dute, isilik daude, beldur handia dagoelako, lanetik kanporatua izatearen beldurra. Administrazio publikoaren aurka borroka egitea zaila dela ikusi dugu, harresi bat da”. Salatu dute Osakidetzak ez duela ezer argitzeko gogorik.

Boligrafoz

“Azterketaren arduradunak dira interes handiena dutenak eta eurek hautatzen dute nori eman galderak hautapropa baino lehen. Azterketa eguna baino lehen eskura ematen dizkiete boligrafoz idatzita galderak, leku eta ordu zehatz batean geldituta”.

“Antzerkia”

Jon Darponek iruzurra argitzeko abian jarritako ikerketa “hutsaren hurrengoa” dela diote: “Antzerkia”. “Lanean hasi eta gutxira jakin nuen iruzurra egiten zela”, esan du Martinezek, beraz, ez duela sinesten bizitza guztia lanean daramanak ezer ere ez jakitea.

EUSKARA
ADMINISTRAZIOAN



996

lanpostu publikotik soilik 80 plazatan eskatuko dute euskara Nafarroako lan eskaintza publiko berrian. Osasunbiderako, administrazio nukleorako, eta osasun publiko eta lan instituturako izango dira 996 plazak. B1, B2 edo C1 maila eskatuko du Nafarroako Gobernuak, lanpostuaren arabera.



KRISIA IRUÑEAN

Izquierda-Ezkerra eta Aranzadi udal gobernutik kanpo geratu direla iragarri du Iruñeko alkate Joseba Asironek, eta gobernu berritua jakinarazi du. Arrazoia, inbertsio ekonomiko jasagarrien bozketan bi alderdikideak abstenitu izana. “Ezin zaio Gobernuari oposizioa egin, Gobernu barrutik”.



KUTSADURA

Aplikazio berri bat sortzeko elkarte dira Ekologistak Martxan taldea, ingurumeneko agentziak eta zenbait ikertzaile. Tresnari esker, kontsumitzaileek erosten dituzten produktuen substantzia toxikoen berri izan dezakete.



ASKATASUNA

Jose Ramon Lopez de Abetxuko aske gelditu da 29 urteren ondoren. Preso gasteiztarra gaixotasun koronarioarekin larri dago. Bestalde, Oskar Cadenas euskal preso ere libre atera da Murtziako espetxetik, 18 urte kartzelan eman ostean.

Magdalenak, neska bekatariak zigortzeko makinaren biktimak



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

1996an itxi zuten Irlandako azken *Magdalenen garbitegia*, ustez bide okerrete abiatutako emakumeak moja katolikoaren agindupean zerratuta lan derrigortuan edukitzen zituen komentu-lantegia. Ingeleseko gatazka armatuaz bezala apaiz katolikoek haurren kontra erabilitako bortxaz, oroimen historikoan bide luzea egina du Irlandak azken urteotan, baina justizia egin ezinik dabil mende luze batez elizak estatu independentearen laguntzaz emakumeei eginiko zanpaketa.

“Dublingo *Magdalena garbitegi* ohiaren etorkizuna eztabaidan”, zioen Eireko Irrati-Telebista publikoaren ekainaren 28ko tituluetako batek. Egun hartan ehun lagunetik gora bilduak ziren aztertzeko nola doazen Dublingo Udalak Toyoko multinazionalarekin daramatzaten negoziaketak eraikin zahar tristerean orubean eraiki ditzan 350 gelako hotela, supermerkatua eta 76 etxebizitza. Polemika bizirik dago: herritar askok nahi dute leku hura bihur dadila *Magdalenak* oroituko dituen gune publiko bat.

Kristauen Ebanjelioek aipatzen duten Maria Magdalena Eliza Katolikoak santsutzat goraiatzaren du uztailaren 22an baina herritar xehen irudimenean nagusitu den Magdalena da *emakume galdua* Jesusek bide onera eraman zuena. Independentziaz orain arte Elizak ia dena kontrolatu duen Irlandan *Magdalene laundry* bateko neskek estigma hori zeraman soinean: okerreko bidetik ibili den emakumea moja katolikoak arrastotan sartzen ari direna bere bekatuak garbituz *labanderia* batean eginda...

Nathalie Sebbane irakasle frantsesak “*Les silences d’Irlande*” artikuluan laburbildu berri du milaka irlandarren errealtate gordina. “*Magdalene Sisters*” filmaren arrakastari esker, dagoeneko oroimen kolektiboan daude *galbidetik* sartutako emakumeak zigortzeko Irlandak erabili dituen erakunde horiek. Baina gizarte mailan asko aurreratu den arren, biktimek ez dute oraindik lortu ez barkamen eskari ofizialik eta ez kal-

te-ordainik”. 1922tik 10.000 emakume baino gehiago eduki dituzte derrigorrezko itxialdian preso.

Ez da Irlandan asmatutako errepresio sistema. XIII. mendean Italiako Florentzian zabaldu zuten Maria Magdalenaren izena zeraman mota honetako lehenbizikoa, komentu bati lotutako egoitza prostituziotik damututako emakumeak bezala horretan erortzeko arriskuan egon zitezkeenak biltzeko. Geroztik Ingalaterra eta Irlandan zabaldu ziren, hasieran aberats filantropoek finantzatuak.

Irlandan XIX. mendean lau moja ordena katolikok hartu zituzten beren gain, eta “babes-etxeon instituzionalizazioak ekarri zuen erregimen ia totalitarioa”. Ustezko aterpetuei lan orduak luzatu zizkieten eta hasieran ofizio bat ikastea izan behar zuena bilakatu zen instituzioa finantzatzeko esklabo-lan.

Magdalena garbitegiak baziren Irlandan guztian (Dublin, Galway, Cork, Limerick, Waterford, New Ross, Tralee, Belfast...), bakoitza komentu bati lotua eta gehienetan ondoan zeukana ama solterentzako *Mother and Baby Home* babes-etxe bat eta *bekatuzko* haurrek hazi ahala lan egiten zuten *Industrial School* bat. Horra sistema oso bat, Estatuaren eta Elizaren artean herri eta auzoetako jendeak beldurrez *arrastotan sartzeko* antolatua.

“Erregimen honek –dio Sebbanek– daukan esanahi moralizatzailerik eta erlijiozkoaz gain, badauka marka sozial

gogor bat ere. Beren gogoz kontra garbitegi horietan preso eduki zituzten milaka emakumeak gehiengo handi batean familiarik behartsuenetatik atereak baitziren, eta txirotasuna lotzen zitzaion immoralitateari”.

Alabak ez dezala familia osoa lotsarazi

Magdalene laundry batean giltzaperritzen zuten emakume bakoitzari izen berria ezartzen zioten, santu batena, bere iragana ezabatu eta salbatze bidean jartzeko lehen urrats. Ileak moztzen zizkieten, harrokeria den bekatuaren tentaziotik baztertzeko. Jantziki itsusi eta kolore ilunekoz bezti arazten zuten, edozein feminitate arrasto ezkutatzeko. Lanaldi akigarriak ezartzen zizkieten berehala, otoitzez, lan gogorrez eta derrigorrezko isiltasunez hornitutako egunak.

Irlandako iritzi publikoak luzaz bes-tela uste bazuen ere, milaka emakume baldintza horietan preso eduki izanaren erantzukizuna ez zen soilik Eliza Katolikoarena. Auzitegiak epaileek, polizia eta baita osasun zerbitzuak ere *Magdalenen garbitegi*-etara bidali zituzten bazterketa arriskuan zeuden pertsonak, izan umezurtzak edo ama ezkongabeak beren ume *sasikoekin*, horrela kondenatuz sare horretan harrapaturik geratzera bizi osorako.

Hala ere, erreformatorioetan egon diren 10.000 emakumeetako gehienak beren familiak sartu zituen apaizaren laguntzaz. “Aginte moralaren berme iza-





"Hope Hands" gunetik hartutako argazkian, elkarretaratzea Dublingo Sean McDermott karrikan 1996 arte zabalik egon zen azken Magdalene laundry establezimenduen atarian. Eraikina oroimen historikorako atxikitzea nahi dute ekintzaileek. Aldiz, udalak baimentzen badio, Toyokok eraikiko duen hotelean garbitzaile ia-esklabo berriak ariko dira bertan turisten logelak garbitzen, halabeharrak horrelako bihurrikeriak ditu.

ki -dio Sebbanek-, parrokiako apaizek familiei gomendatzen zieten beren alaba ustez galduak garbitegi batera bidaltzea, lotsaizuna saihestu eta familiaren ohorea babesteko. Tarteka gertatzen zen ere zenbait neska gazte bertara bidaltzea besterik gabe politegia zelako eta *bekatuan* erortzeko arriskua zuelako edo mutikoei probokatzekoa. Izan ziren beren erabakiz joandako neskak ere, beste irtenbiderik aurkitu ez zutelako".

Ofizialki establezimenduok erakunde pribatuak izaki, aterpetuen lana zuten diru iturri bakarra. Bertan itxitako emakumeek ez zuten inolako soldatarik jaso sekula. Seguritate sozilean ez zuen inoiz inork utzi kotizazio bakar bat ere. Batzuek egonaldi laburrago edo luzeagoa egin ostean lortu zuten beren familietara itzultzea. Izan ziren hesia urraturik alde egitea lortu zutenak ere. Beste batzuk

neskame lanen bat aurkituta irten ahal izan ziren. Baina askok urte luzeak eman zituzten itzalpean, beren senideek baztertuta, gizarteak ahantzita.

90eko hamarkadan eskandalu handiek astindu zuten luzaz Irlandako gizartearen zutabea izandako Eliza Katolikoa: apaiz, gotzai eta kongregazio maskulinoetako erlijiosoen -herrialdeko hezkuntza sistemaren parte handi bat beren gain daukatenek- haur eta gaztetxoei eragindako sexu abusuak. Irlandari bere historiaren alde ezkutu bat azaldu zitzaion. Baina asko haizatu ziren arren delako *Industrial School*etan gertatutako desmasiak, zalaparta bera ez zen iritsi *Magdalenen garbitegi*etara, hauek izan arren kontrol sistema errepresibo haren kate-begi minberena. Haietatik irtendako azken emakumeek isilik eta lotsaturik alde egin zuten Ingalaterrara bizi berri baten bila.

1993an eztanda berri bat: Dublingo *garbitegi* handiena mojek saldu zutenean etxebizitzak eraikitzeko, hondea -makinak sartutakoan dozenaka emakumeren hezurak azaldu ziren bertan, heriotz agiririk gabe legez kontra lurperatutako garbitzaile anonimoak.

Emakume taldeak mobilizatu ziren, *Justice for the Magdalenes* kanpaina berotu. Estatuaren erantzukizuna demostratu behar izan zuten. Ofizialki garbitegiok erakunde pribatuak ziren arren, 2013an Dublingo legebiltzarraren batzorde berezi batek erakutsi zuen Estatuak zeharka finantzatzeko zituela beren ikuzketa zerbitzuak erabiliz kaserna militar, ospitale eta beste zenbait atal publikoen goba da lanak egiteko.

Egia mantso dabil emakumeontzako. Oraindik kalte-ordainik ez zaie bideratu. Azken *Magdalenenak* itzaliz doaz isilik. ■



50 urtez elkarrekin



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



«Nagusi baten zeregina ez da aginduak ematea»

Maria Jesus Intxausti

Habe eta akuilu

Ur handitan telebista saioan ikusiko zenuen akaso. Guk hantxe ikusi genuen. Baina, akaso, lehenagotik ere ezagutuko zenuen jakin gabe, akaso dastatuko zenuen Lazkaomendiko Iztueta-Azpikoa baserrian ekoitzitako esnerik, jogurtik edo izozkirik. Zer behar da XXI. mendean baserriari eusteko? Zein da baserriko nagusiaren zeregina? Zer eman diote emakumeek baserriari? Horretaz guztiaz galdetu diogu Maria Jesus Intxaustiri.

Testua: Danele Sarriugarte Mochales

Argazkiak: Dani Blanco

Noizkoa da Iztueta Azpikoa baserria?

Lehenengo insaustitarrak 1740an etorri ziren hona. Dena den, badirudi aurretik bazegoela hor beste baserri bat, egurrezkoa-edo, eta gero egin zuten eraikin hau. Insaustitarren aurretik iztuetarrak egon ziren, beste leinu bat, eta armarría ere haiena da. Badirudi izan zirela garai hartan sona zuen jendea, gerlariak, errege-erregina katolikoen aliatuak edo horrelako zerbait. Hemen baziren etxearen historian oinarritutako eta eskuz idatzitako liburuak, baina eraman egin zituzten. Geroztik ibilita gaude begiratzen, Sevillarraino iritsi ginen, zeren han badirudi badagoela horrelako gauzak biltzen diren gunek bat, baina arras-torik gabe gaude.

Izenari eutsi diozue hala ere.

Bai, hori bai. Izena ez da aldatzen, baserrietan-eta, askotan, zure izenez ez zaituzte ezagutzen, baserriaren izenarekin ezagutzen gaituzte.

Etxe honek bi dorre zituen eta 1949. urtean berritu egin zuten. Dorreak berritu beharra zegoen, badirudi eskaile-rak-eta gaizki zeudela, eta nola ez zuten ezertarako balio, bada moztu egin zituzten dorreak, eta harria, gainera, eliza konpontzeko eraman.

Ez zuten ezertarako balio?

Iztuetatarrekin bai, gerrarako-eta... Dorreak ba omen zituzten leiho txiki-txiki batzuk handik geziak botatzeko. Azken batean leku estrategikoan

Maria Jesus Intxausti

Iztueta-Azpikoa, Lazkao, 1956

Baserritarra (eta enpresaria). Kanpoan ikasten eta lanean egin zituen bospasei urteez kanpo, baserrian aritu da lanean bizi osoan. Gipuzkoako EHNEko lehendakaria izan zen 1997tik 2003ra. Aurten, emakume enpresari onenaren saria eman dio Gipuzkoako Aspegi elkarteak.

dago, behean dago lautada guztia, eta handik kontrolatzen zuten. Baina guri ez ziguten balio. Gu beste modu bateko jendea gara eta beste modu bateko aktibitatean gabiltza, azken batean



baserritarrak etorri ziren hona eta baserritik bizi izan gara geroztik zazpi belaunaldi. Lehen, bizi ahal izateko egiten zen lan baserrian, ateratzen zen familia osoa mantentzeko janaria, eta gero hori aldatzen joan da pixkanaka-pixkanaka.

Hemen jaio zinen zu. Hemen bizi izan zara beti?

Bai. Bost urtez egon nintzen etxetik kanpora ikasketak egiten, eta gero buelta.

Damurik ez?

Ezta batere. Batzuek ez dute ulertzen, baserriko lana handia delako, baina bizimodu bat da, eta zuk zurea egiten duzu, zuk markatzen duzu zure bidea eta inork ez dizu esaten horrela edo hala.

Ingurua asko aldatu da?

Biak aldatu dira, Lazkao eta Lazkao-mendi. Lazkao-mendin daude 30 baserri eta baserri guzti-guztietan zegoen nekazal aktibitatea. Orain, 5-6 batean egongo da aktibitatea, norbait horretara dedikatzen dena.

Zeren ondorio da hori?

Lehen esnetara dedikatzen ginen ia denak, esnetarako behiak genituen, baina kantitate gutxi, eta baserritik bizitzeko aktibitatea pixka bat aldatu edo buruari eragin behar zitzaion. Eta jendeak errazera jo du, azken batean kalea hor dago, industria hor daukagu, eta industriara joan da edo beste aktibitate batera joan da, eta hor bilatu du bere lanbidea eta baserria pixka bat gelditu da zintzilik: bizilekua bai, eta etxerako baratzea, baina kito. Eta hori gertatu da, alde batetik, industria hor daukagulako eta erraztasuna egon delako lana aurkitzeko, eta beste aldetik, administrazioak ez duelako jakin hemengo baserriekin zer egin. Oraindik ere ez. Ez lehen ez orain. Ez da egon politika bat bideratzeko baserriek aurrera jarraitzea, eta horrela oso zaila da. Norberak izan behar du edo indar handia eta gogo handia baserriarekin jarraitzeko, edo bestela errazera jotzen duzu, lan-tegian lana aurkitu, baserrian mantentzeko zerbait jarri, baina hobby bezala. Guk badakigu zer lan-eremu ditugun, makineria sartzeko zailtasun handiak daude eta eremu txikiak dauzkagu, baina gauza ezberdinak egin daitezke

eta hori egiten ez dugu asmatu, guk ez dugu asmatu eta inork ez digu argibiderik eman. Bestelako zailtasunak ere izan dira, Europan sartu ginenean ere nahiko kolpe latza izan zen.

Kaltea ekarri zuen?

Bai, nekazaritza kaltetuaz onurak hartu zituzten beste sektore batzuetan.

Esnetan bizi zarete 1925etik. Nola joan da bidea egiten?

Ni gogoratzen naiz nire aitona nola joaten zen mandoarekin eta karroarekin, marmitetan esnea hartu eta banatzera. Gero amak jarraitu zuen eta gero amari guk jarraitu genion. Orain Ainitze alaba laugarren belaunaldia da horretan ari dena. Aldaketa pixkana joan da, eta beti ikusi da oso garbi gure baserrian guk sortzen duguna kontsumitzaileari eskaini behar diogula, zuzenean, ahal den eta bitartekari gutxienekin.

Pixkanaka joan da guztia eboluzionatzen, baina garai batean bezala, gaur ere berdin, zelaiak zaindu behar dituzu, ingurumena errespetatu behar duzu. Nekazaritza iraunkorra egiteko, eta egin behar da, zuk utzi behar duzu daukazu-na ahalik eta urte gehien iraun dezan, eta horretarako errespetuz jokatu behar duzu, nahitaez, eta azken batean hori da gure baloreetako bat: ingurumena, eta urtetan iraungo duen nekazaritza egitea. Bai lurra mantenduz, bai ganaduaren zainketan, baita egiten dituzun produktuetan eta lan egiteko moduan ere, zeren atzekoek bestela ez dute nahi izango. Iraunkorra izan behar du, zentzu guztietan.

Esan duzu ikasten ibili zinela kanpoan. Zer ikasi zenuen?

Ikasten aritu nintzen, ikastola batean lan egiten ere bai, ume txikiekin. 17-18 urte inguru nituen, eta urte nahiko eroak izaten dira horiek. Oso gustura ibili nintzen eta ez naizenez geldi egotekoa, hainbat gauza egin nuen.

Nolatan erabaki zenuen baserrira itzultzea?

Jada nire bikotekidearekin bizi nintzela, aita hil zitzaigun, istripu batean hemen baserrian. Garai hartan ama, aita eta anaia bizi ziren baserrian. Aitarena izugarrizko kolpea izan zen amarentzat. Anaia-arreba guztiak bildu ginen eta ikusi genuen egokiena zela norbait



inguratzea. Ni prestatu nintzen, beste ahizpa bat ere bai, eta azkenean erabaki zen egokiena ni izango nintzatekeela eta horrela egin zen.

Noiz izan zen hori?

Izango dira 38 urte.

Jarraitzeko beharrezkoa al da dibertsifikatzea?

Bai, dibertsifikatzea edo, behintzat, zuk ateratzea balio erantsi bat egiten duzun lan horri. Alegia, zuk eraldatzen baldin baduzu esnea eta zuk saltzen baldin baduzu, zuk ateratzen duzu hor egon daitekeen errentagarritasuna. Ordea zuk esnea ematen badiozu zentralari, beste kontu bat da.



Independentziari eustea oso garrantzitsua da zuentzat?

Bai, oso. Niretzat behintzat oinarrizkoa da, eta baserriak jarraitzeko ezinbestekoa. Baserri handixeagoa edo txiki-xeagoa izan, egon daiteke hainbat jarduera ekonomiko; zenbat lur daukazu, horren arabera moldatu beharko duzu zer jarduera egin baina modu asko egon daiteke. Hala ere, argibide horiek norbaitek eman behar dizkizu, eta horren falta handia sumatzen zen eta sumatzen da gaur egun ere.

Esnea eta esnekiak ez ezik bestelako zerbitzuak ere eskaintzen dituzue, bisita gidatuak, adibidez.

Lehen zerorrek esan duzu, bi belaunal-

» “Zenbat jende ikusten duzu zuk salmenta zuzena egiten? Ia denak dira emakumeak. Baserriak aurrera jarraitzeko plazatan nola egon behar dugun, emakumeak izan du beti ikuspuntu hori”

di atzera egin eta baserritik gatoz denak, eta orain egin duguna da guztiz deskonektatu. Oso beharrezkoa da hautsita dauden zubi horiek berriro erakitzea, eta bisitak horretarako ere izan litezke. Haurrak etortzen dira batik bat, baina helduak ere bai, eta jendea zoratzen joaten da.

Jogurtak eta izozkiak egiten hasi zineten 2015ean. Beldurrik ez?

Inoiz ez dugu beldurrik izan. Pausoak pixkanaka ematen badituzu eta pauso sendoak ematen badituzu, eta gure kasuan behintzat hala izan da, poliki-poliki bazoaz aurrera. Ez derrepente bost pauso bata bestearen atzetik, hor bai, hor amildegira erortzeko aukera guztiak di-

tuzu. Eta beldurrik nik behintzat ez dut inoiz eduki, beti izan dugu aurrera jotzeko indar hori.

Guka ari zara beti... Zenbat lagun zabiltzate hemen lanean?

Hemen, soldata kobratuz, lau pertsona gabiltza. Ainitze eta biok alde batetik, eta bestetik bi langile dauzkagu, berrikuntzan eta banaketan laguntzen digutenak, zeren azken batean kate osoa guk egiten dugu, banaketa ere bai, ez diogu banatzaile bati ematen. Horrela guk kontrolatzen dugu dena, eta hori oso garrantzitsua da, bestela eskutik alde egin diezazuke beste norbaiti emanez gero. Zuk nahi ez dituzun gauzak edo onartzen ez dituzunak egin ditzakete zure izenean.

Soldata kobratuz lau pertsona ari gara lanean, baina atzetik talde handia daukagu, familia daukagu: senarra, semea, suhia, erraina, ahizpak...oso garrantzitsua da hori, denok proiektu bera edukitzea eta pausoak ematea helburu horretara.

Zer da baserriko nagusia izatea? Zer behar da baserria gobernatzeko?

Guri amak markatu zigun asko bidea, oso indartsua zen. Nik beti buruan izan dut baserriak nola jarraitu behar duen, eta pixka bat hori aurrera eramatea izan da nire zeregina. Ni bat gehiago izan naiz, baina bideratu edo bildu edo koordinatu egin dut... batu.

Kola bezala?

Ez dakit, nik ez dut inor behartu lepotik hartuta... Etorri dira, eta proiektua bera izan da bildu gaituena. Nagusiaren zeregina ez da aginduak ematea, hori nagusi oso txarra da, nagusiak motibatu egin behar du, animoak eman, bide bat eduki, proiektu bat eduki... Proiektua ez da nirea bakarrik, guztiona da, eta gu bezala funtzionatzen dugu, ez ni, baizik gu: koordinatuz, elkarri animoak emanez eta baloratuz.

Eta arazoak sortzen direnean?

Hitz egin. Arazoak sortzen direnean, eta arazoak izaten dira noski, hitz egin behar da, eta konpondu, eta aurrera, ez dago besterik.



Azken hitza: Geldirik, inoiz ez

"Beti ari gara eragin eta eragin, hara eta hona joan eta ikusi, beti eboluzionatzen eta beti berritzen, berrikuntza konstante batean. Behar-beharrezkoa da edozein lantegitan. Pausoka-pausoka, hainbat gauza dauzkagu buruan, eta udazkenean ziurrenera produktu berri batekin etorriko gara".

Emakume enpresari onenaren saria eman dizu Aspegi elkarteak (Gipuzkoako Emakume Profesional eta Enpresarien Elkartea). Nola hartu duzu?

Hasieran esaten duzu, hara, enpresari onena, belarrian pixka bat horrela egiten du, baina azken batean izan da nire ibilbidearen aitortza, eta lehen sekto-reko pertsona bati emateak badu bere garrantzia. Gustura eta pozik hartu dut.

Zerbait gehiago esan nahi duzu?

Emakumeak baserrian daukan egitekoa azpimarratu nahi nuke. Emakumea izan da baserriaren euskarri eta habe nagusia, hala da oraindik, eta aurrerantzean ere izango da. Ziur nago emakumerik ez baldin badago baserrian, bukatzera egingo duela.

Zer eman diozue emakumeek baserriari?

Ondorengoak eman dizkiogu, noski, eta baserriari beste ikuspegi bat ere eman diogu. Zenbat jende ikusten duzu zuk salmentazuzena egiten? Ia denak dira emakumeak. Baserriak aurrera jarraitzeko plazatan nola egon behar dugun, emakumeak izan du beti ikuspuntu hori. Guk egiten dugun produktuari nola emango diogu irtenbidea? Salmenta zuzena, jendearekin harremana. Gizonak gehiago jo du beste bide batetik: makineria erosi, beste sega-makina bat, beste ez dakit zer... Emakumeak, berriz, etxeko kontuak direla-eta, oso garbi ikusi du beti nondik datorren ezkurra eta non dagoen ezkurra, eta nola lan egin behar den.

Gizonak gehiago jo du kantitatea egitera, eta hemen inoiz ez da hori egin. Garbi daukagu guk ezetz, funtzionatuko dugula daukagunarekin: guk dauzkagu, gutxi gorabehera, zenbat ganadu hainbeste hektarea, eta ez goaz ganadu gehiago jartzera, ez dugu ez dakit zenbat handituko gure produkzioa, ez, izugarritzko akatsa da hori. Daukaguna daukagu eta horrekin funtzionatuko dugu. Kalitatezko esnea egin behar dugu, gero hori eraldatuta kalitatezko produktuak egiteko.

Emakumeen egitekoa kanpotik ez da hala ikusten?

Emakumearen lana beti izan da bigarren mailakoa, guk ere gure burua beti eduki dugu bigarren mailan, horretara erakutsi digute beti erlijioak eta abarrek. Gu hasi ginen hori hausten, baina izugarritzko zama izan da, beti bigarren mailan eta ez baserrietan bakarrik, kalean ere bai, beharbada baserrietan oraindik eta gehiago. Aurpegia atera behar da, hemen gaude eta balio dugu, eta erakutsi dugu egiten badakigula. Horregatik, Aspegiko saria aitortza izan da. ■

Besaulkiko tronutik

Ezkerrekoak gara, langileak. Tira, langileak bai, baina klase ertainekoak. Hori bai, kontsumitzen dugunean, kapitalista gara. Lanegun luze baten ostean, hozkailua ireki eta ganorazko afaririk prestatzeko ezertxo ez. Gaur ere astirik ez dugu izan erosketak egiteko. Auzoko denda txikiak goizegi ixten dituzte eta!

Eskuko telefonoa hartu eta errazena egingo dugu. Astea gogorra egiten ari da eta hainbeste lan egin ostean... *delivery* bat eskatuko dugu. Zerk tentatzen nau gehien? Zer arraio, aspaldian ez dugu sushirik jan. Menua begiratu, atzamarra pantailan gora, beheara, klik, birentzako afaria eskatuta. Janaria heldu bitartean, interneten lasai ibiltzeko aukera daukat. Egunkariak begiratu, bideo barregarriren bat, biharko eguraldiaren aurreikuspena... Erlojuari begira, luze egiten ari zait itxaronaldia. Non sartu ote da banatzailea? Kargurik ez diot hartuko, gizajoa... Gure iloba gazteenak pizza-jatetxe batentzat lan egin izan du motorrarekin. Ez zioten askotxo ordaintzen, baina bateragarria zen unibertsitateko ikasketekin. Eskerririk asko, prekaritate, eskerririk asko, *flexiguritate*. Alde positiboari begiratu beharra dago: azken batean, jatetxe hauek enplegua sortzen dute.

Txirrira jo dute. Eskaileretan gora, hasperenka pausu arin eta azkarrak entzuten dira. Janaria poltsatik ateratzen digula, barkamena eskatzen digu tardatu izanagatik, bere bizikletan egiten duela banaketa lana. Kartaratik dirua atera eta eskupeko bat utziko diot gizajoiari. Kubo itxurako poltsa horiak atentzioa deitu dit bereziki, hori ote da ditzosozko *Glovo* famatua?

Bikoteak aipatu dit *glovo*-aren inguruko erreportajeren bat irakurri duela berriki eta sushiaren kutxatxoak ireki bitartean, sarean bila hasi naiz. Tes-tigantza latzak irakurri ditut telefono



Aiala Elorrieta Agirre

EKONOMIALARIA

@aialuski

Piramide esplotatzaile baten barruan ikusi dut nire burua: besaulkiko tronutik, eskuan zartailua dudala. Kontsumitzaile kapitalista bai, baina langile bat esplotatzen duen langile naizela. Lehengo langilearen –klase ertainekoa– lanordu bakoitza hobeto ordainduta dago, eta bere aisia-ordu batek ere balio handiagoa dauka. (...) Bigarren langilearen –edo autonomo faltsuaren– lanorduak gutxiago balio du, eta bere aisiarako eskubidea erabat urratuta geratzen da

pantailan. “Autonomo faltsuak gara eta azkenean gure lanaren esklabo bihurtzen gara. Jendeak pentsatzen du hone-tan bizikletan ibiltzea maite dugulako gabiltzala. Hau gure lana da eta soldata duin bat eskatzen dugu”.

Kontsumitzaile, kapitalista, zapaltzailea: gure etxean afaria guk geuk egin ordez, zerbitzua kanporatzen dugu, preziorik merkeenean eta atzean gertatzen denari axolagabe, langile prekarioak edo autonomo-faltsuak gure zerbitzura lanean jarrit. Inolako lan-hitzarmenetatik kanpo geratzen badira ere, sindikalizatu eta haien eskubideak era antolatuan defendatzeko aukerarik geratzen bada ere, gaueko hamarretan gose garenean guri bost: aisialdirako gure eskubidea gauzatzeko unea dugu.

Piramide esplotatzaile baten barruan ikusi dut nire burua: besaulkiko tronutik, eskuan zartailua dudala. Kontsumitzaile kapitalista bai, baina langile bat esplotatzen duen langile naizela. Lehengo langilearen –klase ertainekoa– lanordu bakoitza hobeto ordainduta dago, eta bere aisia-ordu batek ere balio handiagoa dauka. Aisialdiaz gozatu eta afaria etxeraino ekar diezaioten ordaintzeko adina badu karteran. Bigarren langilearen –edo autonomo faltsuaren– lanorduak gutxiago balio du, eta bere aisiarako eskubidea erabat urratuta geratzen da.

Egongelako besaulkian ipurdia harapatuta daukadala, *atsegin dut*, *retweet* eta elkarbanatzeak egiteari ekin diot. Bitartean *Whatsapp*-eko jakinarazpen bat heldu zait, bihar goizerako premia handia duen txostena egin dezadan. Zast! Nagusiaren emotikonoak ez du leundu nire bizkarraren gainean sentitu dudana zartailuaren kolpea. Piramidearen gailurrean poltsikoak betetzen dituen enpresa pribatu bat da. Eztarria kontraesanez trabatuta, zapaltzaile zapalduak lanari ekin dio, gaueko ha-maiketari. ■

German 40 urte

Ez dakit zehatz artikulu honek noiz ikusiko duen argia, baina imajinatzen dut ateratzerako eginda egongo dela 2018ko uztailaren 8ko ekitaldia, German Rodríguez hil zuten 40. urteurrena gogoratzeko egin behar dena.

Udaletxe plaza leporaino beteko dela ez daukat zalantzarik; izan ere urtea emankorra izan da, eta makina bat ekitaldi, mota askotako, egin izan dira urtean zehar azken omenaldi hau arrakastatsua izan dadin; ez alferrik, prestaketa lanak duela urte eta erdi hasi ziren, 2016ko udazkenean.

1978ko uztailaren 8an gertatu zen erasoaren zentzua, asmoa, helburua eta ondorioak aski ezagunak dira eta aski argi daude, errealitateari zureko betaurrekoekin begiratzen enpeinatzen ez denarentzat, behintzat. Une dramati-koak izan ziren, noski, eta gure hiriaren geroa markatu zuten urte luzetarako.

Tokitan dago 1978. urtea, ordea. Baina ordutik, urtez urte, Germanen memoria itzal ez zedin ahalegindu diren guztien borroka eta temari buruz: eredugarria, konpromiso handikoa, une zail eta gogorak ezagutu ditue-na. Zenbat bider zartatu, zikindu eta margotu dute Germanen oroimenez



Jon Alonso

IDAZLEA

1978tik gaur den egunera, uztailaren 8 guztietan, han egon izan dira Germanen lagunak, familiarrak eta, besterik gabe, eraso horri buruz egia, justizia, erreparazioa eta errepikatuko ez zelako bermea eskatzen zuten iruindar guztiak. Berrogei urtez, behin ere hutsik egin gabe

ezarritako estela? Beste hainbeste-tan berritu eta berrezarri egin da. 1978tik gaur den egunera, uztaila-ren 8 guztietan, han egon izan dira Germanen lagunak, familiarrak eta, besterik gabe, eraso horri buruz egia, justizia, erreparazioa eta errepikatu-ko ez zelako bermea eskatzen zuten iruindar guztiak. Berrogei urtez, behin ere hutsik egin gabe. Berrogei urtez, gertatu zenaren oroitzapenak eta arrazoi bategatik edo bestearen-gatik falta ziren adiskideen hutsuneak hunkituta.

Haiei esker, katea ez da eten, eta gaur egun, euren bizitzaren sasoi onenean dauden berrogei urteko iruindarrek ere badakite orain berrogei urte gertatu zen erasoaren berri.

Baina, paratu den monumentu be-rriaren babesean Sanferminak 78 Go-goan kolektibokoek esaten dituzten hi-tzak nire eginez, esan dezadan 2018ko uztailaren 8an ez dela ezer amaitu; han jarraituko dugu hemendik aurrera ere, egia, justizia, eta erreparazioa eskatuz, dagoeneko gero eta gehiago garelako biktima guztiak -guztiak- nork eragin-da, nola eta zergatik sortu ziren jakin gabe ez dagoela elkarbizitza justua eraikitzerik uste dugunok. ■

MARCOS
okindegia

**Benetako
antzinako ogia**

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

**EKONOMIA SOZIAL ETA
SOLIDARIOA MASTERRA**

UPV/EHU DONOSTIA

PLAZA LIBREAK DITUGU

www.gezki.eus



UPV/EHUko Giza-
Ekonomia eta Zuzenbide
Kooperatiboen Institutua
Instituto de Derecho
Cooperativo y Economía
Social de la UPV/EHU

DATU PERTSONALEN BABESA

EUROPAKO ARAUTEGI BERRIA
Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu



SIGACUS

© 943 453 588 · www.sigacus.com

Emakumeak, arraza eta klasea



Ruben Sánchez
Bakaikoa
IRAKASLEA
@arlotea

Angela Davisen *Emakumeak, arraza eta klasea* liburuan AEBetako emakumeen aurkako azpiratzea aletzen du, beltzak eta langile-klasekoak izateagatik areagotua. Liburuak badakar Lorea Agirrek Davisi eginiko elkarrizketa, non “beltzak” eta “euskaldunak” alderatzen dituen; hango azpiraketan arrazakeriak eta Euskal Herriaren hizkuntza-zapalkuntzak duen zentraltasunagatik. Davisen ohartarazten du, dena den, ezin dela herri bateko errealtatea zuzenki bestera pasa, tokian tokiko berezitasunak aintzat hartu behar direla.

Hizkuntzaren aldeko borroka feminismoa eta klase borrokarekin elkarlotzeak badu zentzua. Areago, baita ekologismoa, justizia soziala, base-ria, inklusioa eta borroka justu guztiekin lotzea ere. Eta zentzuaz harago, hobeto koka gaitzen laguntzen du eta dimentsio berriak ekarri.

Angela Davis Bilboko kaleetatik ibili bazen, ordea, ikusiko zuen beltzak egon badaudela, baita magrebtarrak, latinoamerikarrak eta arlote gehiago. AEBetan bezala arrazakeria pairatzen dutela, beheko klaseetakoak direla, eta emakumeak badira hori dena areagotzen dela. Horrek ez du ukatzen euskaraz bizi nahi duen euskalduna azpiratuta ez dagoenik; barrikada-kideak identifikatzen laguntzen du.

Duela 40 urte euskara Euskal Herri osoan guztiz azpiratua zegoen, gaur egun, eskolatik hasi eta ETB1eraino, baditu bere esparrutxoak, nongo

euskalduna zaren arabera handiagoak ala txikiagoak. Tokian tokiko errealtateak aintzat hartu behar dira, horregatik ez dira onargarriak Patxi Mendiburuk Nafarroako D ereduen gainean errandakoak: “Baztertzalea da etorkinak eta adimen urrikoak paretik kendu eta *guayak* geratzen zarete”. Espainiera, berriz, unibertsala, abegikorra eta integratzailea omen da. To eta ño!

Honek, bihotzerrea igarota, pentsarazi beharko liguke Espainiak eta Frantziak jarri diguten trantza: euskararen azpiratzea diru-laguntzen bidez ezkutatu eta menderatu. Euskara posible duzu, baldin eta ordaintzen baduzu. Ez soilik Nafarroan eta Iparraldean, EAEn ere bai. Zenbat dira egunero gaztelania jakin ez, eta EPAn dohainik ikasten ari diren etorkinak? Zenbat etorkinen seme-alaba bideratzen dira A eredu eskola eta institutuetara “euskara ezingo dutela ikasi” esanik?

Euskaraz bizi nahi dugun euskaldun zuriok kexu gara –arrazoiz– egunero gu azpiratzeko eraikita dagoen sistema batean bizi garelako. Baina ez dugu pairatzen klase-zapalkuntzarik euskaldunak izateagatik, eta garai bateko aldarrikapenak –publikoa eta unibertsala– gero eta karamilatuago ikusten ditut instituzioek jarritako amaraunetan.

Mila fronte daude, baina espainiera eta frantsesari ezin diegu utzi hizkuntza integratzaile eta dohainekoen statusa izaten beltzen begietan. ■

Bron/Broen X



Itxaro Borda
IDAZLEA

Duela bi aste, hamar hilabete berritzen pasa ondoan, San Izpiritu zubia ireki diete autobus eta beribil saldoei. Ziuntaz pasatzen dira, gauez eta egunez, dioxido partikulak airean hedatuz eta gure biriken sakoneraino barreiatuz.

Telesaila nordikoz eta latino-amerikarrez hazi euskal idazlea naizenez, erraz imajina dezaket atmosferaren kutsaduraren biktima litekeen hilotz bat, zubiaren erdi erdian etzana, burua San Izpiritun eta zangoak Baiona Handi opulantean, Joan Tartas idazle zaharrak lerrakeen eran!

Uda honetan, ederki estreinatutako zubiak –haurren ekitaldiak, tango dantzaldia, Cranberrie-

sen *Zombie* kanta megafonietatik eta su ziriak–jasango duen hilotz bakarra Baionako Bestetan sobera mozkortu izakiren batena baizik ez bide dateke... Baina baliteke ere jende gutxiago hurbiltzea, eredu maskulinista gorenaren ildotik hordimen kolektiboa lege jartzten duten ospakizun hauetara: Baionan errotzen ez direnek zortzi euroko sarrera ordaindu beharko dute, bestaren baitan bana-beste gastatzen dituzten hiru-rehun euroz gainera! Baionarrek aldiz esku-muturreko horia eramanez dute, lekuko biztanleak direla frogatzeko! Bereizketa bitxia ez?

Hilotzak ez dira beti uste dugun tokian... ■

Liburutegiak jomugan

Egin dezagun amets. Behin bazen irakurle herri bat. Horretan, bakoitza joan zitekeen etxetik hurbil zegoen leku batetara, (...) leku bero bat non norberak bere burua eta besteena deskubritu zezakeen, non ikasi, irudikatu, trukatu, bidaiatu zezakeen. (...) Herri hori, gurea da, Frantzia da. Guri dagokigutxo existitu dadin”.

Prediku hitz horiekin bururatzen da Erik Orsenna Frantses Akademia kidea-ren eta Noël Corbin Frantziako Kultur Saileko Ikuskari Orokorren txosten bat, 2018ko otsailan agertua, *Liburutegiaren herrian bidaiatz* izendatua. Emmanuel Macron lehendakariak galdeginik, bi adituek Frantziako liburutegien itzulua egin dute, eta horien egoera-akta agerrarazi.


Txosten horretan, egileek azpimarratzen dute jende franko letragabea dela Frantzian. Ongi dakigu ere ezaxola gero eta handiagoa dagoela gizartean literaturarekiko, batez ere garaikidea ez den literaturari begira. Hots, liburutegietan gehien aurkitzen den fondoari begira. Egoera hori problematikoa da bai kulturalki- bere iragan kulturala ezagutzen ez duen herri batek ez dukeelako etorkizun oparorik- bai politikoki ahultze demokratikoaren seinalea datekeelako.

Hain zuzen, demokraziaren indartzea daukate helburu Orsennak eta Corbinnek beren lanean: horien ustez, liburutegiak gehiago sostengatu beharko lirateke, jende gehiago erakar dezaten, Frantzia herri ikasi eta argiagotako bihurtu dadin. Baina xede horretan egiten dituzten proposamenak dudazkoak dira: liburutegiek beharko lukete ongizate guñeak bilakatu, jakitateaz gain solastatzeko guñe informal erosoak eskainiz, jan-edateko tokiekin, haurrendako joko dibertigarriekin, akituak diren pertsonendako lo egiteko guñeekin, zerbitzu publikoei dedikatu tokiekin (langabe-



Katixa Dolhare-Zaldunbide

IDAZLEA



Antton Olariaga

tuen harrera, posta); gehi, bistan dena, ongi ekipatua litekeen informatika gela bat. Eta liburutegiaz, zer? Formazio bereziak segitu beharko lituzkete jende harreraren, beren funtzio berriei egokitzeko; lagundu beharko lukete beren lantokia automatizatu bihurtarazten, asteen zazpi egun eta egunean hogeitalau orduz zabalduta izan dadin; publikoaren artean bolondresen bila joan beharko lukete laguntza eskuratzera, lan berri zamari aurre egiteko.

Hots, demokrazia, jakintza hedatzea, norbanakoaren eta jendartearen adimen garatzearen izenean, Orsenna eta Corbinnek txostenak kontsumismoa eta liburutegien errentagarritasuna du bultzatzen, liburutegietan lan funtse gutietsiz, animatzaile soil edo bezero arpoitzale bihurtarazi nahi du, liburutegiak deskralizatuz merkatarien esku uzteko.

Bonne sieste à la bibliothèque artikuluan (*Le Monde Diplomatique*, 2018ko ekaina, 771. zb., 27. orria.), Éric Dussert eta Cristina Ion idazleek sakondu dute liburutegien bilakaera hori, eta erakusten dute Ameriketako Estatu Batuetako ereduaren ildotik dabiltzala Frantzia: hezkuntza herrikoia eskaintzeko xedearen gibelean, enpresa eta fundazio pribatu handien konkurrentzia izugarria eragiten duen eredu.

Bizi naizen eskualdean, jadanik frogatua dut bolondresik gabe liburutegi publikoak ez duela funtzionatzen ahal, baina ez da oraino merkatu espazioa bihurtua: hurbiltzen den jendea oraino “irakurle” deitzen dute, eta ez “bezero”. Ondoko hilabeteetan gauzatu daitekeen bilakaerari erresistentzia egiteko garaia daukagu oraindik, beraz, xoko honetan behintzat, eta modu hoberena izanen dugu liburutegitik liburuak mailegatzeari, eta horiek sorrarazi gozamenaren partekatzea. Mentura hori zureganatuko duzulakoan zuk ere bai, ARGIAko irakurle, uda ona pasa! ■




ARGLaren **AZOKA**n elkar elikatzen dugu

saldu

erosi

musutruk eman

musutruk hartu



80 gai baino gehiago salgai
50 gai baino gehiago musutruk

Enklabeak eta esklabeak

Bizimodu eta nortasun bitxiak

“Trebiñu Araba da eta Urduña zergatik ez?”, galdetu dezake norbaitek. Urduñak Erdi Aroan Arabako Busturia osatzen zuen. Zergatik gelditu ote zen Bizkaian eta ez Araban? Euskal Herrian hiru enklabe daude: Trebiñu, Urduña eta Villaverde Turtzioz. Esklabeak beste hiru dira: Ezkoze, Jeztaze eta Petilla Aragoi. Zer sentitzen dute eta nola bizi dira enklabe eta esklabe horietako bizilagunak?



Mikel Asurmendi
@masurmendi

Enklabeak eta esklabeak herrialdeen historiaren bilakabidearen ondorio dira. Batzuen ustez, komenentziaren arabera osatu dira.

Espainiako Erresumaren egungo lurralde antolaketa oso kontserbadorea da. Alta, lege zaharreko banaketak errespetatu omen zituen. Probintziak egin zirenean, antzinako lurraldea aintzat hartu zuten. Frantziako Errepublikan, aldiz, kontrakoa egin zuten. Iraultzaz geroztik lurraldetasunaren banaketa berritu zuten, Departamendua egitura politiko gotorra finkatu zuten. Euskal Herriko hegoaldeko herritar gehienok Espainiako Estatuaren zentralismoa kritikatzeko dugu gartsuki –egun bizitzen ari garen inboluzio zentralista izugarria aintzat hartuta betiere–, alabaina, Frantziako zentralismoa alimalea da.


Espainiako Estatuaren 1978ko Konstituzioak historiako enklabeak eta esklabeak errespetatu zituen bere horretan. Adibidez: Petilla Aragoi Nafarroaren esklabea da Aragoi. Bitxikeria gisa, Santiago Ramón y Cajal aragoitar-nafar sendagilea Petillakoa zen. Aragoitar sentitzen zen, ez nafar. Lurralde horietan identitatearen inguruan sortu zen kontraesa-

nen adibide bat da. Omen, trantsizioaren ondoren Ramon y Cajal kale bat eman go ote zioten eztabaidatu zuten Iruñeko Udaletxean. Alderdi politiko guztiek kontra bozkatu zuten, eskuinetik ezkerrera, espainolengandik euskal abertzaleengana, ez zelako nafar sentitzen.

Ekonomiak agintzen omen du historiaren bilakaeran. Eta aldian aldiko agintarien “lurralde honi identitate hau dagokio, guk esaten dugulako” maxima inposatzen dela diote zenbaitek. “Trebiñukoek arabarrak izan nahi dute, hobe delako arabarra izatea burgostarra baino, Urduñakoek berriz hobeto ikusten dute beren burua Bizkaian, Araban baino”. Esaera horiek zer dute egiatik?

Trebiñu (Uda barrendegia)


Enklabe guztien artean lurralde zabalena eta ezagunena da Trebiñu, Uda ere deitua. Arabako enklabea da, bere administrazioa aldiz Burgosko probintziarena (Gaztela eta Leon Autonomia Erkidegokoa). Barrendegia bi udalerrik osatzen dute: Trebiñuk eta Argantzunek. Gaztelako Erresumak Araba indarrez konkistatu zuen 1200. urtean. Henrike II.a Gaztelakoak Trebiñu eta bere



Enklabeak eta esklabeak

Definizioa:

Geografia politikoan, lur-eremu batek lurralde arrotzaz erabat inguratutik dagoenean **enklabe** izena hartzen du, inguruko lurren agintea duen herrialdearen ikuspegitik betiere. Lur-eremuaren agintea daukanaren ikuspegitik, berriz, **esklabe** esaten zaio –barrendegi deitua ere– bere gainerako lurraldea alboan ez daukan lur eremuari.



lurraldeak Pedro Manrique Lara kondeari dohaintzan eman zizkion 1366an, Arabako Anaiarte 1463an sortu zenean Trebiñu kanpo gelditu zen, eta XVI. mende bukaeratik Burgosi lotu zitzaion.

Trebiñu Araban sartzeko eskaera anitz egin dute barrendegiko agintariek historian zehar. XX. mendetik aurrera, bertako biztanleek lurraldea Arabarekin batzea nahi dute. Bertako alderdi politiko nagusiez gain (PP, EH Bildu edota EAJ), talde independenteek dute berebiziko munta gobernuan. Ciudadanos del Condado de Treviño (CDC) M. Elena Ramírez Izquierdo da alkatea: “Gu Arabako lurraldearen barruan gaude. Bizitza soziala, laborala eta familiarrak batzen gaitu. Gehiengo, definizioz, arabar sentitzen gara”. Bere hitzetan, edozein dela ideologia, logikak bultzaturik, denek defendatzen dute hori. Arabako PPK ere defendatzen du Trebiñuren arabartasuna. Uda barrendegia Arabako zatitza hartzen dute denek.

Gaztela eta Leon Autonomia Erkidegoarekiko harremanez mintzatu zaigu: Ramirez “Harremanak oso gogorrek dira. Gaztelarrek ez dute Trebiñu Arabaren parte izatea nahi, euren lurraldearen zati bat kendu nahi diegula pentsatzen dute. Ez dira jabetzen hemen dagoen errealitate sozialaz. Gure eguneroko bizitza ez dago Burgosera begira, Arabara baizik”.

Alkateak dioskunez, Trebiñu udalerrian proiektatzen den guztia lupaz begiratzen dute gaztelarrek, hainbatean udal akordioak atzera bota behar izateraino: zerbitzuak direla, dela garraioa, dela nekazaritza edota hezkuntza. Esaterako, lehen mailako eta kolegioko ikasketak gainditu ostean ikasleak Gasteizera doaz ikastea. Zergak, Gaztela eta Leon Autonomia Erkidegora doaz: “Haur eskola gure gain dagoenez, moldatzen gara Gaztelako Juntarekin negoziazioak zehatz eta tentuz eramaten”. Osasun arloan ez dute arazorik. Eusko Jaurlaritzarekin akordio markoa egina dute, anbulatorioak udalerrian dituzte. Medikuek espezialistak Gasteizen.

Auziari irtenbidea emateko bidea erreferenduma egitea litzateke: “Guk bultzatu behar dugu Espainiako Kongresuan eztabaidatu dadin, edo Lege Organiko baten bitartez probintziako mugak alda daitezten. Bestela, enklabe lege bat sortu edo mugei buruzko lege berri bat egin beharko litzateke. Guk

» **M. ELENA RAMÍREZ IZQUIERDO, TREBIÑUKO ALKATEA:**
“Harremanak oso gogorrek dira, gaztelarrek ez dute Trebiñu Araba izaterik nahi”

» **ROBERTO ORTIZ DE URBINA, ARGANTZUNGO ALKATEA:**
“Belaunaldi berriak arabarrak eta euskaldunak dira berez”

» **IDOIA AGINAKO ARBAIZA, URDUÑAKO ALKATEA:**
“Gure identitatea bizkaitarra da, dudarik gabe. Gainera, Bizkaiko hiri izendapen bakarra izatea harro daramagu”

» **JAVIER PÉREZ AGUIRRE, VILLAVERDE TURTZIOZKO ALKATEA:**
“Gazteak ari dira gero eta gehiago hurbiltzen Bizkaira”

udalerrri bezala ez daukagu ahalmenik auzian indartsu eragiteko. Haatik, Arabako alderdi politikoak interpelatzeko ditugu”, erran digu alkateak.

Argantzun udalerrria

2007ko udal hauteskundeetan Agrupación Independiente Nueva Puebla hautes-elkarteak (AINP) udalerriko zazpi zinegotzietatik hiru eskuratu zituen. Roberto Ortiz Urbina alkatea talde horretakoa da. Aurreko alkate Alfredo Oraaren Agrupación Independiente Puebla de Arganzón hautes-elkarteak bi zinegotzi eskuratu zituen, EAE-ANVk eta PPK bana. Orduan, PPKo zinegotzia salbu, gainerakoak Trebiñu Araban integratzearen aldekoak ziren.

2011ko maiatzaren 22ko hauteskundeetako emaitzen ondorioz, AINPko Roberto Ortiz de Urbina hautatu zuten alkate berriz ere, sei zinegotzi eskuratu zituen, PPK bat. 2013ko martxoaren 8an, bozketaren bidez, Burgostik bereizteko eta Araban sartzeko tramiteak hasteko udalbatzak eskatu zuen, aldeko bost botoekin eta abstentzio batekin. 2015etik, EAJk eta EH Bilduk zinegotzi bana dute, eta AINPk sei: “Gehiengo arabarrak gara, lurraldea Arabari lotuta dago, Burgos gehienentzat arrotza da hemen”.

Argantzungo ikastolak hiru aldiz antolatuta du Araba Euskaraz jaia. Azkeneko iragan ekainaren 17an, arrakasta handiz: “Belaunaldi berriak arabarrak eta euskaldunak dira berez”.

Roberto Ortiz de Urbinari Gaztela eta Leongo Juntaren harremanez ere galde-tu diogu: “Ez dute harremanik nahi. Araban integratzeko gure eskaera iraunkorra da. 1977tik garapen kulturala, garraioa, osasuna Araban egin ditugu. Araban gaude, lana edo eskola direla eta. Jendeak erraztasuna nahi du, jendea Araban –Gasteizen bereziki– errolatzen da. Auzi honek ez du alderdien botoetan hainbeste eragiten. Pertsonok egiten dugu politika, eta politika oso okerra egin ezean, auzi honek udal taldeen jardura politikoa gainditzen du”.

Trebiñu eta Argantzun herriko alkateak auzokidetzat dute euren burua. Bi udalerriek osatzen dute enklabea, elkarrekin ari dira, biak independenteak izaki. Ortiz de Urbinak eta Ramírezek bat egiten dute politika egitean. Gaztela eta Leongo Juntarekiko harremanak bakoitzak bere aldetik lantzen dituzte, eta gaztelarrek ematen dizkieten baliabideak partekatzeko prest daude biak: “Dena den, barrendegiaren afera ez dago baliabide ekonomikoari lotuta. Auzia sinbolo bihurtu da. Herritarrei galdetu beharko litzateke auziari buruz”.

Udalerriek badute bestelako kezkarik ere. Gasteizen bizi diren askok bigarren etxea hartu dute Uda barrendegian: “Azken 30 urteetan jende asko etorri da bizitzera kanpotik. Hori arazoa da. Diru kopuru berarekin behar diegu aurre egin aurrekontuei, nahiz eta etxetiar berriek zergak ordaindu, bildutakoa ez da aski. Gaztela eta Leongo Juntak ez ditu errolatu berrien gastuak bere gain hartzen. Dena den, guk ez diogu Burgosi deus ekartzen, ez kentzen”, diosku Argantzungo alkateak.



Trebiñuko Argantzuko ikastolak hiru aldiz antolatu du Araba Euskaraz jaia. Azkenekoz iragan ekainaren 17an, arrakasta handiz.

Trebiñukoak hauxe dio, berriz: “Guk atera behar dugu aurrera herria. 30 urtean hemengo egoera zeharo aldatu da, belaunaldi berriak gero eta gehiago lotu dira arabar eta euskal nortasunari. Guri gustatuko litzaiguke auziari irtenbide bat ematea, baina egoera politikoak ez du laguntzen, EAE, Nafarroa eta Katalunian egoera politikoak ikustea besterik ez dago. Ez dago lasaitasunik horretarako”.

Urduña

Urduña Arabako enklabea da, Bizkaiko esklabea, bizkaitarrek administratua. Bizkaiko udalerririk hegoaldekoe-na da. Nerbioi ibarrean dago, Arabako eta Burgosko lurrez inguratua, Arabako Aiaraldea eskualdeko herritzat ere har daiteke, arrazoi geografikoak direla eta. Urduña da hiri titulua duen Bizkaiko biztanle gune bakarra.

EH Bilduko Idoia Aginako Arbaiza alkatea honela mintzatu zaigu: “Gure identitatea bizkaitarra da, dudarik gabe. Gainera, Bizkaiko hiri izendapen bakarra izatea harro daramagu. Aldiz, herriaren kokapena eramaten ez da samurra, Bizkaia urruti izatea harremanetarako traba da”.

Bizkaitar sentitzeko Bizkaia probintzia indartsua izateak eragin ez ote duen esan diogu: “Inola ere ez. Popula-

zioa aintzat harturik Bizkaiko 95. herria gara, eta Araban 5.a ginateke. Ekonomiaren eraginean ikusgarriagoak ginateke. Araba izatea ez litzaiguke okerrago etorriko. Adibidez, azken urteetan Bizkaia eta Arabako administrazioekin gorabeherak izan ditugu, A-625 errepidearen konponketa dela eta”.

Urduñarrak 4.163 bizilagun dira eta egunero 1.000 auto joan-etorrian dabiltza Amurriora bidean, hamar kilometrotara lanera joateko. Amurrión dago, besteak beste, Mercedesen lantegia: “Arrisku handia bizi izan dugu azken bi hamarkadatan, hogeit bat hildako izan dira istripuz. Errepide proiektu sendoa egiteko dago, Bizkaiko Foru Gobernuak bete du hitza, baina artean Arabakoak ez. Eragozpen handiena errepide txarra izatea da. Industria ez da garatu behar bezala Urduñan eta hori traba handia da XXI. mendean”.

2011ko maiatzaren 22ko hauteskundeetako emaitzen ondorioz Urduñako alkate Bilduko Karlos Arranz hautatu zuten. 2015eko udal hauteskundeetan, Bilduren ondorengoa zen Euskal Herria Bilduk sei zinegotziak mantendu zituen, EAJ alderdiak bat gehiago eskuratu zuen (bost guztira) eta PPK zeukan zinegotzi bakarra galdu zuen. Emaitza horien ondorioz, EH Bildu koalizio-

Idoia Aginako Arbaiza hautatu zuten alkate. Identitateaz berba egin digu alkateak: “Udaletxean ideologia guztietako ordezkariak gaude, eta denek bizkaitar dugu geure burua. EAJk gobernatu du 30 urte luzez, ezker abertzalea oposizioan izanik eta PSOEk eta PPK ere izan dute ordezkartza”.

Enklabeetan azpienklabeak izaten dira. Urduñakoa La Cerca de Villano da. Burgos da. 5.000 metro koadro ditu, baina Araban dago. Bertako larreak gobernatzen zituztenek lanari utzi zioten aspaldi. Azpienklabea Urduñakoa da: “Behinola Bizkaiko PPK larreak erabiltzeko eskatu zuen, baina ukatu zioten. PPK, besteak beste, lurralde horretan haur bat jaioko balitz, urduñarra izatea nahi zuen”. Auziak bere horretan ez du munta handirik, baina Urduñako mendatea urteetan izan da Euskal Herri-rik Gaztelara joateko bide nagusia. Urduñarena da mendi askoren jabetza publikoa. Urduñako udalerriaren barnean, Belandia, Lendoñobeiti, Lendoño-goiti eta Mendeika kontzejuak daude. Urduña da bere mugen barnean izaera administratiboa duten herrixkak dituen udalerri bakarra Bizkaian.

Urduñako haurrak eskola publikoan ari dira D ereduari duela hogeit urtetik. 27 haur publikoan eta 10 eskola erlijio-

so kontzertatuan. Ikastolarik ez dago. Derrigorrezko Lehen eta Bigarren Hezkuntza Amurrioko Institutuan osatzen dituzte, Araban alegia. Medikua Amurrion daukate. Larrialdiak eta ospitalizazioak, berriz, Basauri eta Galdakaon. Eliza kontuak Arabarekin zertzen dituzte. Telefonoaren aurizkia 945 da, Arabakoa: “Egia da, batzuentzat ez da horren argi nongoak garen. ‘Zuek non goak zarete?’, galdetzen digute”. “Nola biziko zinatekete, arabarrak bazinate?”, galdeturik: “Ez dakit. Arabako Batzar Nagusietan oso ongi hartzen gaituzte. Arabarrek ez dute Urduña lurralde galdutzat hartzen”.

Villaverde Turtzioz

Villaverde Turtzioz ofizialki gaztelaniaz Valle de Villaverde da. Kantabriako udalerria da. Berez Bizkaiko barrendegia da, eta horregatik Euskal Herriko zatia jo ohi da; zehazki, Bizkaiko Enkarterriak eskualdekoa. Bizkaiko enklabea, baina administrazioz Kantabriako probintziarena da. Adi! Ez da Bizkaiko Turtzioz herriarekin nahasi behar.

Javier Pérez Aguirre da Villaverde Turtziozko alkatea. 31 urte ditu. Partido Regionalista de Cantabriaren (PRC) eskutik hautatua. Independentea: “Gu kantabriarrak gara, Ogasuna Kantabriaren baitugu. Egia esan, administrazio biki Bizkaiko izan nahiko genuke. Hezkuntza eta Osasunaren zerbitzuak Bizkaiarekin itundua ditugu eta”.

Javier Pérez Aguirrek hori esanda ere, ez dio kantabriar izateari uko egiten: “Ez da horren inguruan egundo inkestarik egin iritzia ezagutzeko. Trantsizio ostean anexioa egiteko ahalegina egin zenean ni jaio gabe nongoen. Nire belaunaldia ez da bizkaitarra. PRC alderdi kantabriarra da. Gazteak ari dira gero eta gehiago hurbiltzen Bizkaira”.

PRCk sei ordezkari ditu eta PPK bakarria udaletxean. Miguel Angel Llaguno Altolachipi izan zen luzaz herriko alkatea. “Alkatea eta herriaren arima. EAJren hurbilekoa zen, haren ideien ildokoa nolabait. Erregionalista”.

Villaverde Turtziozen 2-12 urteko haurrek ikasten dute. Gero Balmasedara doaz. Euskarazko ereduak ikasten dute: “Gazteek eskolan egin dute euskaraz, baina Enkarterrietan euskara ez da hizkuntza bizia, eta hemen ez dute erabiltzen. Gutxi dira gainera. Hala ere, euren identitateak bizkaitarren aldera

» **DANIEL VIGNEAU, EZKOZEKO AUZAPEZA:**
“Gu xarnegu sentitzen gara, ez diogu euskaltasunari bizkar ematen, baina ez gara Euskal Herriko”

» **MARYVONNE LAGARONNE, JEZTAZEKO AUZAPEZA:**
“Frantsesa nagusi da, horrela hezi gaituzte”

» **FLORENTINO AGUAS ARILLA, PETILLA ARAGOIKO ALKATEA:**
“Hizkuntza askoren eragina dugu. Aragoiko, Berariko eta Esako hitzak eta euskal hitzak ere ageri dira gure mintzamoldean. Baina galduz joan dira”

jotzen du. Enkarterrietan Athletic futbol taldearen aldeko joera izugarria da. Santander taldearekikoa, berriz, ez da horren suturik, beraz, gazteak Bilbora begira bizi dira”.

Osasunaren zaintza %90 Bizkaian jasotzen dute. Garraio publikorik ez dago. Ez omen da bideragarria. Ez dago komertziorik ere. Trena 20 kilometrorara har dezakete. Castrora joan ohi dira, baina erosketak Bizkaian egiten dituzte: “Bizkaiaarekin batzeko interesak beti daude, harreman ona dugu, baina PRC Kantabriako gobernuaren dagoen bitartean, ondo gaude, herritarren interesak defendatzen baititu”.

PRCko Miguel Angel Revilla da Kantabriako presidentea. PSOErekin batera ari dira gobernatzen: “PP gobernuan egon zenean utzikeria erabatekoa izan zen guretzat. Laguntzak moztu zizkiguten. 290 biztanle inguru gara. Ez bagaituzte ongi gobernatzen, herritar batzuk beste udalerrietan erroldatzen dira. Egin kontu: gure herriak 20 kilometro koadro dauka eta horietako %70 mendia da”.

Esklabeak

Ipar Euskal Herrian bi esklabe daude, Ezkoze eta Jeztaze, biak Bearnon. Ezkoze Baxenabarreko esklabe bat da eta Jeztaze Zuberokoa. Alabaina, bitxia da, Wikipedian euskaraz Ezkoze Euskal Herriko herri bezala ageri da, frantsesez Bearnokoa. Ezkoze eta Jeztaze Euskal Hirigune Elkargotik kanpo gelditu dira.

Ezkoze

Daniel Vigneau da Ezkoze auzapeza: “Ezkoze historikoki Nafarroakoa izan zen, baina gaur egun ez da hala. Bearn de Gaves Herri Elkargoan kokatuta gaude, eta batez ere bearnes sentitzen gara”. Oloroe eta Paue hiriekin dute lotura gehien: “Gu xarnegu sentitzen gara, ez diogu euskaltasunari bizkar ematen, baina ez gara Euskal Herriko”.

Euskal Elkargoko partaide izatearen aukeraz haxe dio: “Herriko Etxeko hautetsien aldetik ez da eskaerarik izan, ezta herritarren aldetik ere. Euskaldunekiko lotura ekonomikoa basoaren bitartez dugu bereziki, hainbat lur-eremu partekatzen dugu, herritar bakoitzak badu egurra ustiatzeko eskubidea etxaldearen neurriaren arabera”.

Baxenabarreko Donapaleu hamabost kilometrorara daukate, harremanak dituzte hango merkaturak dela medio, baina besterik ez. Saliese edo Peirahorada herriekin lotura daukate: “Identitatearen bilakaera naturala da, ideologia sartzen ez den bitartean. XIX. mendean ideologiak agindu edo erabaki du. Nafarroako Henri IV.a ezkondu zenean pasa ginen Bearnoko parte izatera, Nafarroa utzi genuen. Denetarik gaude, batzuk euskaldunagoak, bestetzuk bearnesagoak, xarneguak, erran bezala, baina funtsean, egun gaskoiak garelako erranen nuke”.

Jetztaze

Jetztaze Zuberoaren esklabea da Bearnon. Ipar Euskal Herriko Euskal Elkargotik kanpo gelditu da. Maryvonne Lagaronne auzapeza eta laboraria mintzo da: “Aita zuberotarra eta ama bearnesa ditut, eta ni xarnegua naiz. Jeztaze pasabide bat da, lurralde mugen artekoa, ondoko herriekin muga egiten du. Donejakue bidean gaude. Zubiek egin dute posible bi aldeetan egotea, horregatik xarneguak garelako diogu. Euskara eta bearnesa galdu ditugu, bi kulturen jiteen nahasketa gara. Frantsesa nagusi da, horrela hezi gaituzte. Etxeetan

eta mendietan bi kulturen ezaugarriak agerikoak dira. Iraganean Donapaleuko kantonamendukoak izan ginen, egun Oloroeko arrondizamenduan gaude”.

Bitxia da, jendarmeriarekin harremanak Donapaleun dituzte. Ezkoze bezala, Bearn de Gaves Herri Elkargoan daude: “Alabaina Zuberoako sindikatuarekin edota komunekin harreman zuzenak ditugu. Maulerekin ur aferak trenkatzen ditugu, baita mendikoak ere Euskal Herriko erakundeekin. Aldi berean, Bearnoko Salbaterrari oso atxikiak gara, haiekin harreman azkarrak ditugu. 91 bizilagun gara eta Euskal Herriarekiko kultur harremanak gorde nahi ditugu. Euskal Herriaren parte sentitzen gara nahiz eta kanpoan egon. Gure haurrak eta gazteak Donapaleu eta Maulen ari dira eskolan. Beraz, ez dugu ukatzen Euskal Herriarekiko harremana eta beharra”.

Euskal Elkargoko parte izatearen aukeraz galdetu diogu: “Ez dugu proiektu handi horren barruan egon nahi, oraino elkargoan ongi gaude. Hobe gaude herri arteko elkargo tipi batean, ez handi horretan, metropoli handia bilakatu baita. Gurean ez da alderdien edo ideologiaren kontua, kontua da zeinek eskaintzen digun bizitza kalitate hobea. Euskal lurraldean ez gara ukatuta sentitzen haatik. Zuberoan herri txiki anitz dira eta eurek eskatzen dute garraioa, bideak, ura eta landen zerbitzuak ontsa artatuak ukaitea, guk ere bai”.

Eskiula

Bestalde, aipagarria da Eskiula herria. Ez da enklabea edo esklabea, herri berezia da. Eskiula ez da inoiz Zuberoa izan, Bearn baizik. Maryse Artigau da auzapeza. Haren idazkariarekin mintzatu gara: “Euskaldunak gara, baina Oloroetik hurbil gara, sei kilometrora, populazioaren erdiak bertan lan egiten du, zerbitzu guztiak han ditugu. Bihotzez euskaldun gara, identitate azkarra dugu”. Bizitzaren oinarria eta bailara Bearnon dago. Euskal Elkargoan sartzeko galdera izan da, baina Herriko Etxeak ezetz erran du: “Ez da arazorik izan. Egonkortasun eta egokitasun ona dago Eskiulan, egun bizi garen bezala ongi gaude”.

Petilla Aragoi

Petilla Aragoi Nafarroa Garaiko Zangozako merindadean dagoen udalerria da, geografikoki Zaragozako probintziako Cinco Villas eskualdean kokatuta bada-



Xabier Zabaltza

HISTORIALARIA

Euskal herrialdeetako mugak errege-erreginek eta jaun-andreek ezarri zituzten Erdi Aroan. Hein batean artifizialak dira: Eskiula euskalduna beti Bearn izan da eta Ozaraine-Eribareita gaskoiduna, Zuberoa. Enklabe-esklabeek ziriari zotza sartzen diote.

Ustez feudalismoaren hondarrekin bukatzearen, 1790ean Frantziako iraultzaileek Pirinio Behereetako Departamendua sortu zuten. Orduraz geroztik, Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoa ez dira ofizialki existitu. Haien esklabek ere ez: Ezkoze (Baxenabarrerena) eta Jeztaze (Zuberoarena), biak Bearnon. Iaz Ipar Euskal Herriko Hirigune Elkargoa osatu zen. Elkargoak hiru herrialdeak bildu ditu, baita Baiona eta Bidaxune ere, Lege Zahararren garaian beregainak zirenak. Gainera, Gaskoinia zein Bearnoko bost udalerri sartu zituzte bertan: Bokale, Samatze, Akamarre, Erango eta Lixoze. Bi esklabek kanpo gelditu dira.

Espainian ere departamenduak proposatu zituen baten batek (Matxitxako eta Bidasoa, gure kasuan). Alferrik. 1833an, probintziak sortu zituztenean, Hego Euskal Herriko lauretako mugak hain hertsiki errespetatu zituzten, ezen enklabe eta esklabek guztiak bere horretan utzi baitzituzten.

go ere. Herri txikia da, 35 biztanle ditu. Nafarroaren esklabea Aragoi. Florentino Aguas Arilla da alkatea 2015etik, Agrupación de Petilla de Aragón taldearen izenean. Udaltzatzaile alkate eta bi zinegotzi ditu: “Petillak ez dauka inolako berezitasunik, errealitatean ez da inongo arazorik, administrazioaren aldetik Nafarroakoak gara, zerbitzu guztiak, ura eta zaborra, medikua eta eliza ziurtatuta dauzkagu”.

1231tik udal nafarra da. Zangozako mankomunitateko herrikidea: “Petillarroko harreman ona daukagu denekin. Bastanesko -azpiesklabea- larretan zereala eta ganaduarentzako ahala edo bazka lantzen dugu. Bertan dago San

EUSKAL ERLIKIAK

1840tik goiti zazpi kuadrillak osatu dute Araba: Gasteiz, Agurainek, Aiarak, Guardiak, Zuia, Mendozak eta Añanak. 1996an Zortzigarrena Fundazioa eratu zen, Uda, Gaztelaren esklabea (Landazurik halaxe, “Uda”, zeritzon XVIII. mendean Trebiñuri; ez dakit zergatik ez duen onetsi toki-izen hori Euskaltzaindiak), Arabako zortzigarren kuadrilla bihurtzeko asmoz, udatar gehienek sostengaturik. Urduñan ez da inoiz antzeko mugimendurik izan Bizkaiaren esklabea bederatzigarren kuadrilla bilakatzeko. Eta, dakidala, inori ez zaio oraindik bururatu Arabako Busturia berreraikitzea, Aiarako Kuadrillaren barruan, Urduñaz eta Amurrioko mugapeko Delika, Artomaña, Aloria eta Tertanga herriez.

Enkartazioetan Billaberde dago, nahiz eta 1440tik goiti Gaztelako Erresumarena izan, gero Sanandereko Probintziarena eta, gaur egun, Kantabriako Autonomia Erkidegoarena. Hemen ez da liskarrik. XIX. mendean Trueba enkartaua izan zen enklabearen bizkaitartasuna aldarrikatu duen bakanetakoa.

Petri II.a Aragoiko erregeak Antso Azkarrarekin jokaturiko karta partida batean galdu omen zuen Petilla. Bertako bizilagunak nafar sentitzen dira. Batzuk euskal herritar ere bai. Salbuespen sonatuen Ramón y Cajal Nobel sariduna izan zen. Haren aragoitartasuna zela eta, zenbait zinegotzik haren izena ukatu nahi izan zioten Iruñeko kale bati.

Feudalismoa arroka gogorra gertatu da gurean.

Antonino ermita. Petillari dagokion finka da, eta han biltzen gara erromerian urtero.”

Eskolarik ez dago eta etorkizuneko arazoa da despopulatzea, herria erabat hustea. Haurrak Zangozara doaz ikastera. Hizkuntzaaz galdeturik hauxe: “Hizkuntza askoren eragina dugu. Aragoiko, Berariko eta Esako hitzak eta euskal hitzak ere ageri dira gure mintzamoldean. Baina galduz joan dira”.

Santiago Ramon y Cajal buruz galdeturik, nafar edo aragoitarra ote zen...: “Auzi horretaz ez dakit deus ere. Dena den, Iruñeko Bideko Ama Birjina Ospitaleko plazan badago haren busto bat, eta haren izeneko kale bat ere bai”. ■

MIGRATZAILEEN MBOLO PROIEKTUA BILBON

“Ez gaituztenez kontratatzen, kooperatiba sortzera goaz”

Duela hiru hilabete ezagutu genituen Khadim, Baba eta Bouba. Eskakizun guztiak betez Bilbon kale-saltzaile aritu arren, administrazioak legea gogortu eta berriro paperik gabe utzi nahi zituela kontatu ziguten. Hiru hilabete geroago, Khadim Frantziara joana da, etorkizun hobearen bila, eta Baba eta Bouba garbitzaile kooperatiba ari dira antolatzen beste hainbat migratzaileekin batera, kale salmenta uzteko asmoz. Bitarte horretan, “Inor ez da ilegala” kamiseta ere sortu dugu elkarlanean, ARGIAren eta Mbolo kooperatibaren proiektuak indartzeko. Tixerta bultzada dela diote, euren borroka luzean.



Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Bai, duela hiru hilabete kontatu ziguten Bilboko kale-saltzaile senegaldarren Mbolo Moye Doole elkarteak kideek: lizentzia lortu zutela 2015ean, autonomo gisa saltzaile aritzeko, eta 200 euroko gutxieneko kotizazioa frogatu behar zutela paperak berritzeko, baina egun batetik bestera, Espainiako Atzerriarrentzako Legea aldatu eta 800 euroko kotizazioa eskatzen hasi zitzaizkiela, baldintza bete ezina manteroentzat. Eta Espainiako Estatuko hiri askotan malgu jokatzeko badute ere (kotizatzearekin aski dute, ez diete gutxieneko kopururik exijitzen), zorrotz aplikatzen ari dira eskakizuna Bilbon. Ondorioa? Mantero ugariak beste erkidego batzuetara alde egin du, eta Babari adibidez, ez dizkiote paperak berritu. Babak 11 urte daramatza Bilbon bizitzen, eta herritar ilegal izatera itzuli da.

“Alde horretatik, ez dago aldaketarik, zorrotz jarraitzen du Bilboko Atzerriarrentzako Bulegoak, interesen bat izango dute, gu zokoan mantentzeko interesa, ea noiz aspertu eta alde egiten dugun”, dio Babak. Irungo Sanmartzial jaietan lan egitetik bueltatu berri da, eta Iruñeko

Sanferminetara ari da bidaia prestatzen. “Lagun baten etxean lotarako lekua alokatzea erabaki dut, ongi deskantsatu eta duxatu ahal izateko, zeren auto txikia dut eta ez dut bertan lo egin nahi egunero”.

Bouba ez da Sanferminetara joango, ez da inoiz Bilbo eta inguruetatik ateratzen, beldurragatik: “Paperik gabe harapatzen banaute, migratzaileentzako CIE zentro batean bukatu dezaket, eta gero auskalo non”.

Hiru hilabete hauetan, Espainiako Gobernua aldatu egin da. “Pedro Sánchezek esan zuen Gobernura iristen bazen paperak erraztuko zizkigula migratzaileoi, eta migratzaile elkarte batzuk esperantzatsu daude, baina tira, nik uste politikarien hitz hutsalak direla, Gobernura iritsi aurretik esaten direnak”, dio Pape Niangek. Aurreko aldiak ez genuen elkarrizketatu, baina kamiseta sortu bidean ezagutu dugu, bera ere kale-saltzaile senegaldarren elkartekoa baita. Bederatzi urte eta erdi daramatza Bilbon bizitzen eta ezkor mintzo da: “Legeak urtebeteko kontratua eskatzen digu legalizatu ahal izateko, baina zein enpresak egiten du urtebeteko kontratua? Are gutxiago paperik gabeko beltz bati! Etengabeko gupil zoroa da eta ezin gara gupiletik atera: paperik ez dizute ematen, eta paperik gabe ezin

dugu ezer egin. Pertsona bat integratzea nahi baduzu, aukera eman behar diozu integratzeko, bertan bizimodua aurrera atera ahal izateko aukera”. Baina legea bera da oztopo, “mugatzeko gaituen sabaia da, leku berean denbora asko eraman arren, asko formatu eta lan egin nahi izan arren, ez zaitez inoiz marjinalitate egoera horretatik atera. Txikitu egiten gaitu”, salatu du Boubak.

Ez bazaituzte kontratatzen, sortu kooperatiba

“Ez dugu inongo konfiantzarik kontratatuko gaituztenik, beraz gure kabuz ekin behar”, diote. Urte asko dira kale salmentan dabilzala, fruiturik ikusi gabe, beti paperak lortzeko borrokan eta polizia-rengandik ihesi. Kaleak utzi eta Kataluniako ereduari jarraiki, kooperatiba sortzen ari dira, Mbolo proiektua: migratzaileek sortutako garbiketa kooperatiba batekin hasi eta ideia da kooperatibak arlo gehiago hartzea, zaintza edota mudantzak esaterako, emakumeak eta gizonak barne hartuko dituenak –kale salmentan, apenas dagoen emakumerik–.

“Hainbat elkarte ditugu laguntzen, eta garbiketako profesionalei eskatu diegu aholkua. Jatetxeetara, enpresetara, etxeetako atarietara... ere jo dugu, gal-



detzeko ea nola lotzen duten garbiketa, eta bide batez gure burua aurkezteko. Baina askok ez digu batere harrera onik egin, batzuek ez digute hitz ere egiten, begiratu ere ez”, azaldu digute, ohituta dagoenaren normaltasun kutsuz. Badute esperantza, halere.

“Oso argi esaten du kamisetak: inor ez da ilegala”

Kamisetak da ilusioa piztu dien beste proiektua. “Inguruan eskatu dizkigute dagoeneko, oso harrera ona izaten ari da eta kontaktu guztietara ari gara bidaltzen”, adierazi digute. “Uste dugu mezua zabaltzeko modua ere badela, oso argi esaten duelako kamisetak: Inor ez da ilegala. *Amul been nit ku leegalul Senegalgo wolof hizkuntzan*”. ARGIAk 15 eurotan saltzen duen kamisetak bakoitzagatik, 2 euro Mboloko kideentzat dira eta migratzaileen kooperatiba aurrera ateratzeko baliagarri izango zaiela uste dute. Zuzenean eurek ere saltzen dituzte kamisetak. “Nik jantzita eramango dut ahal dudan guztietan, horrela norbaitek esaten badit gustuko duela, non eskuratu dezakeen azalduko diot”, dio Babak. Hortaz, badakizu, uda honetan *Inor ez da ilegala* kamisetadun saltzailea ikusiko duzu beharbada, Euskal Herriko jairen batean.

» Kataluniako ereduari jarraiki, migratzaileek sortutako garbiketa kooperatiba batekin hasi eta ideia da kooperatibak arlo gehiago hartzea, zaintza edota mudantzak esaterako, emakumeak eta gizonak barne hartuko dituen

» “Guk hasi dugu borroka lege eta estatu bidegabeen aurrean, eta hurrengo belaunaldiek segituko dute gure borroka, etorkizunean etortzen jarraituko duten migratzaileek”

Ezker-eskuin, Bouba Diouf (47 urte, horietatik ia hiru Bilbon), Pape Niang (47 urte, bederatzi eta erdi Bilbon) eta Baba Mbaye (35 urte, hamaika Bilbon). “Inor ez da ilegala” kamisetak eskuratzeko, sartu azoka.argia.eus helbidean edo deitu 943 371 545 telefonora.

Lotsaren lotsaz, besterik ez bada

Ilun, oso ilun ikusten du etorkizuna Papek. Etorkizuna? Zein etorkizun? Bizirautera daude ohituta. Estatuaren ankerkeriari aurre egin ahal izateko borrokan, elkartasuna eta babesa ezinbestekoa dutela gogoratu digu Babak. Eta Boubak hitz egin du baikorren, duela hiru hilabete ezagutu genuenetik beti ikusi diogun irribarre zabala ahoan: “Betik aurrera, gudan eta gure ahalmenetan sinesten. Guk hasi dugu borroka lege eta estatu bidegabeen aurrean, eta hurrengo belaunaldiek, etorkizunean etortzen jarraituko duten migratzaileek segituko dute gure borroka, eta pixkanaka gauzak aldatzen joango dira. Etorkizun hobeak lortuko dute. *Ku rus di nga nangu* dio wolof esaerak; lotsagatik onartuko du. Alegia, azkenean, lotsaren lotsaz besterik ez bada, aintzat hartu beharko gaituztela”. ■

IRUÑEKO MUGIMENDU FEMINISTA

Jaiak plazeretik borrokatuz

2016ko Sanferminetan bost gizonezko emakume bat taldean bortxatu zutenetik, hedabideek tarte zabala eskaini diete 'La Manada' izenez bataiatu duten kasuaren nondik norakoei. Beste behin, informazio kantitatea eta kalitatea ez dira eskutik joan ordea, eta kasuari egindako jarraipena desagokitzat jo dute askok, Iruñeko mugimendu feministak eta herri mugimenduak adibidez.



Amaia Lekunberri Ansola

@amaialekunberri

Urtetan eraso sexistarik gabeko jai parakideen aldeko lanketan murgilduta dauden eragileak izanik, zeharo kalte-tetu ditu talde bortxaketari buruz hedabideek egindako trataerak. Uztailaren 3an emandako prentsaurrekoan adierazitakoaren arabera, badirudi eraso sexisten kontrako urtetako lanketa 2016an hasi zela. "Titularretatik harago", hamarkadak daramatzatela lanean azpimarratu dute.

Orain bi urtetik gauza berbera errepikatzen dihardute: kasu bakarrean arreta jartzeak gainerako erasoak ikusezin bilakatzen dituela eta garrantzia kentzen diela, alegia. 'La Manada' kasuan hainbeste arreta jartzeak erasoak "salbuespeneko zerbait bezala hautematea" dakarrela uste du Bilgune Feministako kide den Amaia Zufiak. Eta F.A.R.R.U.K.A.S. kolektiboak gehitu du "indarkeria matxistaren dimentsio estrukturala, sakonekoa eta sistematikoa ezkutatu" egiten dutela kasu mediatikoei. Zufiaren ustetan "morboan" zentratutako trataera eman zaio gaiari, eta iruditzen zaio askotan zaila dela zehaztea medioak erasoaren aurkako jarreraren izaten ari diren ala erasotzaileei ideiak

ematen. Orain bi urteko bortxaketarekin antzekotasunak dituzten kasu gehiago ematen ari badira, medioek egin duten trataera ez arduratsuagatik dela uste du.

Harrabotsa eragin duen azken kasu honek badu aitzindaririk, 2008an Nagore Laffageren erailketak Iruñeko jaietan egiten dituzten sexu erasoaren gainean alerta piztu baitzuen. Kasu mediatikoenak izan diren bi horien artean, sexu erasoaren gaineko problematika nabarmendu duten beste gertakari batzuk ere izan dira, adibidez bularrak bistan zituzten emakumezkoen gizonezkoen ukituak nola egiten zizkieten agerian uzten zituzten 2013ko txupinazoko argazkiek eragindako zeresana. Nafarroako Unibertsitate Publikoak kaleratu berri duen ikerketa baten arabera, ordea, Sanferminetan ez dituzte gainontzeko festetan baino eraso sexista gehiago egiten. Hori bai, salaketa gehiago jartzen dira.

Beldurraren diskurtsoa

Egun, Sanferminak nagusiki bi ikuspegi-tatik ikusten direla iruditzen zaio Zufiari. Alde batetik, esango luke jende askok aitortu duela urtetan feminismoak egindako lana eta Iruñea gaiarekiko hiri

sentsibilizatu gisa ikusten duela. Baina beste alde batetik, "beldurraren diskurtsoa" hedatu dela dio, jaien gainean eratu den irudi basatiak lagunduta. "Nik ez dut ukatuko puntu basati bat daukanik, baina beste jai guztiek bezala, jai guztietan ematen baitira zoritxarrez eraso sexistak", dio ikerketak azaleratutakoa berretsiaz.

Ikerketak agerian utzitako datuak ulertzeko hainbat gako egon daitezke bere ustetan. Aurreko gobernuak bultzatu izan duen "desfasean oinarritutako" jai ereduak eraso kopuruaren areagotzean lagundu ahal izan zuela deritzo, baina kontrara, erasoaren kontrako lanketaren baitan egindako sentsibilizazio lanak bere fruituak eman dituelakoan da. Hala deritzote mugimendu feministak eta herri mugimenduak ere, Iruñeko jendarteak eraso sexisten aurrean eman ohi duen erantzuna "paregabea" eta "etengabeko lan baten emaitza" bezala hautematen baitute.

Aipatutako beldurraren diskurtsoak izan du zabalpena hala ere, eta honen adierazgarri Sanferminen aurreko asteetan zabaldutako iniziatibetako bat, zeinak emakumezkoen dei egiten zien





» Sanferminetan ez dituzte gainontzeko festetan baino eraso sexista gehiago egiten. Hori bai, salaketa gehiago jartzen dira

» Autodefentsa feministaren aldarrikapena jaien gozamenarekin guztiz bateragarria dela uste du mugimendu feministak

Uztailaren 4ko gaueko manifestaldian egindako amaiera ekitaldia.

EKINKLIK

Iruñeko jaiei boikota egiteko. Boikot deialdi hau eta txupinazo egunean zuri-gorritz jantzi ordez beltzez janzteko aldarria egiten zuen ekimena eztaba-darik, kontsentsurik eta helburu argirik gabe egin direla jakinarazi dute mugimendu feministak eta herri mugimenduak, eta "Iruñeko hainbat kolektiboren lana baldintzatu eta ahultzen duten kanpoko esku-hartze bezala" identifikatu dituzte.

Autodefentsaren aldarria

Kanpotik egindako deialdiek talka egiten dute Iruñean eraso sexisten kontra lanean dihardutenen lanketarekin eta autodefentsa feministaren aldeko aldarri irmoarekin. Batetik, mugimendu feministak apustu irmoa egiten duela emakumeak etxean edo jai eremutik kanpo geratu ordez, plazak hartu eta jaietan dagokien tokia okupatzearen alde. Bestetik, beltzez janzteko egun propioa badaukatelako: uztailaren 4a, indarkeria matxistak eta sistema heteropatriarkala jo-puntu jarritz, F.A.R.R.U.K.A.S. kolektibo feministak deitzen duen manifestazioak gaua eta kaleak hartzen dituen eguna.

Jaien ataritan, garbi helarazten dute mezua manifestaldiarekin: emakume* bati eraso egin ezker, denok erantzungo dugu. "Badakigu eraso matxista gehienak eremu pribatu eta intimoetan ematen direla (...) baina guk kalea okupatzen dugunean pairatzen ditugun erasoak ikusaraztea erabaki dugu", azaldu du kolektiboak. "Emakume gisa gizarteratuak izan garenoi eremu pribatua egokitu zaigu, eta eremu publikoaren erabilera egiten dugunean, "zigortuak" izaten gara maiz" diote, jaietan ematen diren eraso sexistek jarraitzen duten logika seinalatuz. Hala bada, erasoen aurrean biktimaren irudiarekin hautsi eta "emakume* aktibo, ahaldundu eta borrokalariari" bide ematearen alde daude. Amorrua erakutsiz, zarata ateraz, beltzez jantzita eta kolektibotasuna adierazten duen buruberokia soinean hartzen dituzte kaleak. Helarazten duten mezuak "nor bait deseroso sentiarazten badu, hausnartu dezala zergatik", diote.

Autodefentsa feministaren aldarrikapena jaien gozamenarekin guztiz bateragarria dela uste du mugimendu feministak. Jaiak guztionak izan behar dutela defendatzen dute, baina patriar-

katuaren egiturazko indarkeriak jaietan ere islatzen direnez, zilegi iruditzen zaie horiei edozein eratan erantzutea. Hala ere, oraindino "autodefentsa feminista legitimotzat hartzeko erresistentzia ugari" daudela azpimarratu du F.A.R.R.U.K.A.S kolektiboak. Emakume batek, bere buruaren defentsan bada ere indarra erabiliz gero, gizarteak epaitu eta zigortu egiten duela diote. Azaldu dutenez, emakume batek indarra darabilenean ahul eta pasibo izatera derrihortzen duen genero-araua hausten du, eta "horrek sistemaren egitura kolokan jartzen du". Hala bada, beraien helburua "sistema kapitalista, kolonialista eta heteropatriarkala etengabe zirikatzea eta izzoratzea" da.

Zirikatzailerik eta indarkeria sexistaren aurkako lanketan berretsita eta antolatuta, badirudi bonbardaketa mediatikoei eta kanpoko esku-hartzeek eragindako kalteak indargetzen asmatu duela Iruñeko mugimendu feministak. Iraultzaile egiten dituen kolektiboki eratu duten elkartasun eta zaintza sarea dela zin egiten du F.A.R.R.U.K.A.S. kolektiboak. "Elkarrarekin askoz indartsuago gara" azpimarratu dute, eta nabarmena da. ■

Linda Burney

“Zapalkuntzaren historia australiar guztientzat da garrantzitsua, ez soilik aborigenentzat”

Kementasunaren adibide da Linda Burney (1957). Ama zuria eta aita aborigena zituen eta zurien landa-herri txiki batean jaio zen, Australian beltzak eta zuriak nahastea debekaturik zegoen garaian. Politikari eskaini dio bizitza eta bi aldiz egin du historia: 2003an, Hegoaldeko Gales Berriko Gobernuako lehen parlamentari aborigena izatea lortu zuenean, eta 2016an, Australiako Parlamentuko lehen emakume aborigen bihurtu zenean.



TESTUA ETA ARGAZKIAK:

Amaia Zabala Tolosa

Izutzekoak dira britainiarrek Australiako aborigenei egindakoak. Kolonizazioa genozidio odoltsua izan zen eta Tasmania uhartean esaterako, guztiak akabatu zituzten. Kultura, hizkuntza eta sinesmenak ere erabat desagerrarazi zituzten.

Kolonizatzaileak oso basatiak izan ziren bertakoekin. Erabateko inbasioa izan zen, ez asentatzea. Ni Wiradjuri aborigen komunitatekoa naiz, eta gure komunitatea izan zen britainiarren kolonizazioa jasaten lehenengoa. Erakutsi zuen erresistentzia dela-eta, bertan aplikatu zen lehen aldiz Australian Gerra-Legea, 1923an. Lur hauetan ura ere pozoitu zuten, herritarrek hiltzeko, baina hiltzailek handiena dudarik gabe izan zen gaixotasunak sartu izana: hortz txikiak, gaixotasuna, hotzeria, gripea... Aborigenek ez zituzten gaixotasun horiek eza-

gutzen eta ez zekiten nola aurre egin; izugarritzko izurritea izan zen. Duela 230 urte gertatu zen arren, ondorioak oraindik ere modu bidegabeenetan sentitzen eta ikusten ditugu. Izan ere, inbasioaren ondoren erabilitako politika krudelek kolonizazioak adinako mina eragin dute, haur aborigenen bahiketek esaterako.

“The stolen generation” delakoa, hain zuzen.

1900 eta 1970 urteen artean, britainiarrek milaka haur lapurtu zituzten, eta dokumentu ofizialetan hala agertzen da. Aborigenek ez zutela luzaroan biziraungo uste zuten eta horregatik aborigenen artean zuriak ziren haurrak bahitu eta zuriei ematen zizkieten, haurrak salbatzeko zela argudiatuta. Haur horietako askok izugarritzko abusuak jasan

zituzten harrera etxeetan. Guztientzat izan zen lazgarria kolonizazioa, baina senideengandik banandu eta berriro inoiz elkartu ezin izan zuten guraso eta haurrentzat, are lazgarriagoa. Askok eta askok alkoholean eta drogetan aurkitu zuten ihesbidea.

Haur horiek, hortaz, ez ziren euren familekin itzuli?

Batzuk bai eta beste batzuk ez. Oraindik ere haur horietako asko bizirik daude, politika hau ez baitzen erabat amaitu 60ko hamarkadaren amaierara arte. Eta hezkuntzarako eskubidea adibidez 1972. urtean izan zuten lehen aldiz Hegoaldeko Gales Berrian aborigenek. Kolonizazio urteez gain, hurrengo urteetako politika penagarriek sufrimendu handia ekarri dute.



Garai berean amaitu ziren immigrazio politika gogorrak.

Bai, 70eko hamarkada hasieran. Ordu-ra arte, Australiarako sarbidea debekatu zitzaion azal iluneko orori, indiarrei esaterako.

Bestalde, 1952tik 1963ra britainiarrek hamabi proba nuklear egin zituzten aborigenak bizi ziren lurretan.

Australia hegoaldean egin zituzten probak, Maralingan. Nire aitaordea Australiako armadan zegoen eta proba nuklear horietan parte hartu zuen. Garai hartan ez zituzten babes-arropa egokiak erabili eta armadako kideek bizitza guztian nozitu zituzten probek eragindako gaixotasunak, tartean nire aitaordeak. Aborigenei dagokienez, izugarrikeriak kontatu zizkidan: ez zieten proben be-

rri behar bezala eman eta ez zituzten proben eremutik atera, ez zituzten leku seguruetara eraman. Oraindik ere ikus daitezke proben eraginak bertako jendearengan, itsutasuna eta beste hainbat gaixotasun. Britainiarrek, noski, ukatu egin dute eta ez dute erantzukizunik hartu; ez dute ordainagiririk ordaindu ez lurrik garbitu.

Hau guztia nahikoa ezaguna al da nazioartean?

Pentsa, nazio mailan ere ez da behar adina ezagutzen... Espainia, Britainia, Alemania, Frantzia, Belgika... Guztiak izan dira kolonizatzaileak. Hego Amerikako eta Afrikako kasuak ikusi besterik ez dago. Australiaren kasuan, frantsesek ere bazebiltzan kolonizatu nahian eta kolonizatuak izan diren herrialde

» “Inbasioaren ondoren erabilitako politika krudelek kolonizazioak adinako mina eragin dute, haur aborigenen bahiketek esaterako”

» “Indigenen kultura aldatu egin da, ezberdina da, baina gure indigena identitatea mantentzen dugu eta identitate hori da herri bezala bizirauteko tresna”

» “Ama zuria nuen eta aita aborigena, ezkontzaz kanpoko harreman baten fruitua izan nintzen eta nire ama gaixoak herritik ihes egin behar izan zuen. Aitak berriz, ez zuen nire jaiotzaren berririk”

» “Lan handia ari gara egiten guztia ez dadin ikuspegi ezkorretik ikusia izan eta aborigenen eta zurien artean elkarbizitzarako eman ditugun pausoak eta lorpenak ere jakin daitezen”



guztietan antzeko basakeriak egin dira, kultura, hizkuntza, lur eta herri osoak desagerraraziz. Bertakoen identitatea suntsitzen eta haiena inposatzen saiatzen ziren, leku sakratuak hondatzen zituzten eta haien erlijioak inposatzen. Pazifikoko uharte gehienak elizez bete zituzten, ebanjelizazioaren izenean. Baina kasu guztietan, indigenen kulturak nolabait bizirautea lortu du; aldatu egin da, ezberdina da, baina gure indigena identitatea mantentzen dugu eta identitate hori da herri bezala bizirauteko tresna. Amaren aldetik eskoziar arbasoak ditut, baina ni aborigen jendearekin identifikatzen naiz. Oso garrantzitsua da identitatea zer den ulertzea, kolonizazioaren efektuak zein diren ulertzeko.

Nola ikasten da historiako zati hau Australiako ikastetxeetan?

Lan asko egin da aborigenen ikuspuntua, kultura eta bizimodua lantzen dituen ikasgaia eskolako curriculumean sartzeko. Gainera, gero eta eskola gehiagotan ospatzen da Aborigenen Aste Nazionala eta gero eta eskola gehiagok dute atarian Australiako egungo bandera ofizialaz gain aborigenena ere. Hau guztia ezinbestekoa da, gazte askok eta askok eskolari esker ezagutzen dutelako benetako historia. Mantso, baina ari

Goiko argazkian, 2016an, parlamentuan kargua lortu eta bere lehenengo agerraldian, familiako mantu zeremonial bat eskuetan duela. "Ulertu behar da aborigenen artean sekulako dibertsitatea dagoela, ehunka nazio aborigen ezberdin daude Australia osoan eta nazio bakoitzak hezkuntza, hizkuntza eta sinesmen ezberdinak ditu, antzekotasunak ere badituzten arren."

ARGAZKIA: AFP

da egoera pixkanaka aldatzen eta gero eta gehiago dira britainiarren kolonizazioa inbasio moduan ikusten dutenak.

Eta izan al da inoiz australiar zuri auzipe-turik, genozidio krimen hauengatik?

Akusazio batzuk eta epaituak ere izan dira, baina bakar batzuk soilik.

Urtarrilaren 26an Australiaren Eguna ospatzen da. Urtero bezala aurten ere manifestazio ugari izan zen kaleetan, ospakizun hau beste egun batera aldatzeko eskatuz.

Nire iritziz, ez da ospakizunerako eguna, ezta australiarrak batzen dituen eguna ere. Egun horrek Hegoaldeko Gales Berria kolonizatu zen eguna oroitarazten du eta australiar askok ez dugu egun hori nazioaren sorrera gisa bizi, aborigenei egindako sufrimenduarekin lotzen dugu. Aurten gainera, herri agintari ba-

tzuek erabaki dute ez ospatzea. Gogoetarako eta egia gogoratzeko erabili behar den eguna da, eta gero eta gehiago dira horrela pentsatzen dugunak.

Zure historia pertsonala ere berezia da. Zurien landa-herri txiki batean jaio zinen, beltzak eta zuriak nahastea debekaturik zegoen garaian. Nolako haurtzaroa izan zenuen?

Amaren izeba-osaba eskoziarrek jaso ninduten, harrera etxea saihesteko; erabaki ausarta izan zen haien aldetik. 65 eta 70 urteko anai-arrebak ziren eta oso ondo hezi ninduten. Ama zuria nuen eta aita aborigena, ezkontzaz kanpoko harreman baten fruitua izan nintzen eta nire ama gaixoak herritik ihes egin behar izan zuen. Aitak berriz, ez zuen nire jaiotzaren berririk eta 28 urte nituela lortu nuen beraiekin harremanetan jartzea. Eta a zer sorpresa, hamar anai-arreba nituela jakitean! Guztiak ezagutu ditut, eta neba batekin bereziki oso harreman estua dut. Oso printzipio eta balio sendoei hazia eta oso maitatua izan nintzen, baina beti sentitu nuen zati bat falta zitzaidala...

Bost urte igaro zenituen aitaren bila.

Bai, oso zaila izan zen eta azkenean aurkitu nuen, baina oso ohikoa izan da abo-



rigenontzat. Lapurtutako generazioko hainbat haur ibili da gerora senideen bila. Garai hartan arrazismo izugarria bizitu genuen, aborigenenganako eta egiarekiko errefusa ikaragarria zen. 10 urte nituen 1967ko erreferenduma gauzatu zenean.

Hain juxtu, erreferendumaren harira orduan egin zinen australiar herritar, esan izan duzunez. Zer erabaki zen zehazki erreferendum horretan?

Erreferendumaren galdera honakoa zen: "Aborigenak kontuan hartuak izan behar al dira?". Alegia, Australiako herritar gisa onartuak eta nazio gaietan aintzat hartuak, ordura arte ez baikinaren inongo dokumentu nazionaletan azaltzen. Aborigenak ez ziren benetako pertsona gisa hartzen. Erreferendumean baiezkua gailendu zen eta gobernu barruan Aborigenen Gaietarako Departamentua sortu zen.

Sarri esan duzu Australian Apartheida existitu dela.

Apartheid moduko bat izan zen. Aborigenak basamortuan bizitzera behartu zituzten, zuriak herrietan bizi zirelarik. Haur aborigenek 3. gradura arte soilik jasotzen zuten hezkuntza eta irakasleak ez ziren izaten behar bezala prestatuak.

Gure bizitza Australiako Gobernuak kontrolatzen zuen, nora joan gintezkeen, zer egin genezakeen, norekin ezkondu gintezkeen... Milaka haur bahitu zituzten, gure hizkuntza hitz egitea, gure kultura eta ohiturak praktikatzeari debekatu ziguten. Aborigenen auzoetatik atera ahal izateko agiri bat lortu behar genuen, pasaporte moduko bat, argazki eta guzti, eta bertan zehazten zen zenbateko aborigen odol portzentajea zenuen. Gauza bera ikasketekin jarraitu ahal izateko edo lan egiteko.

2003an Hegoaldeko Gales Berriko lehen parlamentari aborigena izan zinen eta 2016an Australiako Parlamentuko lehen emakume aborigena.

Harrotasun handiko unea izan zen eta indigenen komunitateak ere pozarren jaso zuen. Sarri egokitzen zait aborigenen inguruko gaietan parte hartzea, nahiz eta ez naizen bereziki horretarako hautatua izan, Barton eskualdea parlamentuan ordezkatzeko baizik. Baina jakitun naiz jendeak ez zaituela besterik gabe hautatzen, zure ibilbideagatik baizik, egindako lanagatik eta izandako jokaeragatik, eta nire boto-emaelek aborigen komunitatea eta australiar emakume zuri gazteak izan dira batez ere, beraz beraien eskubideak erres-

petatuak izan daitezen egingo dut lan bereziki.

Zein da gaur egun aborigenen egoera sozio-ekonomikoa? Ba al daude euren eskubideak eta kultura babesteko legeak?

Legediko atal asko dira kontuan hartu beharrekoak, alde batetik Estatu bakoitzekoak eta bestetik Gobernu Federalekoak, lurren eskubideei dagozkionak esaterako. Baina bada lege espezifiko bat Australia osorako, kultura, erlijioa, hizkuntza eta espiritualitatea babesten dituen.

Etorkizunera begira, baikorra zara?

Askok ari da aldatzen egoera, australiarrek gero eta gehiago dakite gertatutako izugarrikeriez eta hori garrantzitsua da, jakinaren ganean egoteak aborigenen egoera ulertzen laguntzen baitu. Aborigenen zapalkuntzaren historia australiar guztientzat da garrantzitsua, ez soilik aborigenentzat. Herrialde berezia gara, historian giza-okupazioa beste inon baino denbora luzeagoan jasan duen herria gara. Hala ere, lan handia ari gara egiten guztia ez dadin ikuspegi ezkorretik ikusia izan eta aborigenen eta zurien artean elkarbizitzarako eman ditugun pausoak eta lorpenak ere jakin daitezen. ■

Euskararen Aldeko Plataforma

Erasoen aurrean, Erriberan elkar hartu dute

Euskararen Aldeko Plataforma eratu dute Tuterako AEK-k, Argia Ikastolak, Beterri Peñak, Arrigarai Euskaltegiak, A ereduan irakasle lanetan ari direnek eta Tuteran Jai Gazte Mugimenduak. Plataformako kideek adierazitakoaren arabera, Nafarroan euskararen kontra etengabe egiten diren erasoen aurrean, aukera berriak proposatu nahi dituzte, hizkuntzak bere esparrua izan dezan: "Euskarari aitortza egin behar zaio, euskarak ofiziala izan behar du Nafarroa osoan".



Ainhoa Bretos

@ob_ainhoa

ARGAZKIA: INIGO URIZ / FOKU

Orain dela urtebete inguru, hainbat lagun bildu ziren Tuterako euskararen egoera aztertzeko eta hura hobetzeko egon daitezkeen aukerak aurreikusteko. Iñaki Bakero AEK-ko kideak azaldu duenez, Erriberan euskararen alde egiten duten hainbat talde eta elkarte daude (AEK, Ikastola, Hizkuntz Eskola...), baina orain arte, inoiz ez dira elkarlanean aritu. Beraz, eragileekin bildu eta euskararen aldeko plataforma sortzea proposatu zuten, "euskararen kontra pairatzen ari garen erasoak ikusita, oso beharrezkotzat jotzen baitugu elkarlanean aritzea".

Dagoeneko, hainbat helburu zehaztu dituzte, hala nola, euskararen defentsan jardutea, euskararen aldeko jarrerak piztu eta indartzea, eta euskaldun eta euskaltzaleak bildu eta komunean dituzten guneak indartzea. Dena den, plataformaren sortze-prozesua abian da oraindik, urrian batzar irekia egiteko asmoa baitute, bertako kirol eta kultur elkarte eta alderdi politikoekin. Beraien proiektua eta iritziak aurkeztu, eta euskara beraiena ere badela azaldu nahi diete eragileei. Horietako batzuekin, ordea, ez dute gauza handirik espero. Izan

ere, UPN, PP eta PSN alderdiak gogor ari direla salatu du Bakerok.

"PSNren aldetik, inoiz ez dut horrelako jarrerarik ikusi Erriberan"

Ekainaren 2an milaka pertsona elkartu ziren Iruñean, besteak beste, UPN, PP, PSN, Ciudadanos eta Vox alderdiek sostengatutako manifestazioan. Nafarroako Gobernuak euskararen esparruan daraman hizkuntza politika salatzeke bildu ziren manifestariak, Foru Gobernuak euskara Nafarroaren eta EAEren "bata-sun" modura erabili duela uste dute.

Jarrera horiek gizarte osoari eragiten diotela esan du Bakerok: "Euskararen kontrako iritziak indartzen eta zabaltzen ari dira, gizarteari zabaltzen dioten mezua da". Horren arrazoia hauteskundeak direla uste du plataformak. Beraien iritziz, alderdi politikoak kanpainan daude dagoeneko, Nafarroako Gobernuan sartu nahi dute berriro, eta horretarako oraingoa apurtu nahi dute. Erriberako egoerari dagokionez, bertako UPN, PP eta PSN alderdiak inoiz baino "erasokorrage" daudela eta modu "askoz bortitzagoan" ari direla esan du Bakerok: "PSNren aldetik, adibidez,

inoiz ez dut horrelako jarrerarik ikusi Erriberan. Ez dira izan euskararen defendatzaileak, baina inoiz ez diote egin eraso orain ari diren moduan". Izan ere, euskaldun eta euskaltzaleek euskararen alde egindako bidea moztu nahi dutela uste du.

Horrez gain, egungo Nafarroako Euskararen Legeak zonifikazioa ahalbidetzen du, eta eskubideak zatitu. Parlamentuak lege hori alda dezakeen batzordea sortu zuen otsailean. Horren aurrean, aldatzeko aukerak izan arren, hori baino gehiago beharko dela adierazi du Bakerok.

Nafarren arteko bereizkeria, lege ezarria

Nafarroako Euskararen Legearen arabera, eremu euskalduna izendatutakotik kanpo dauden nafarrek ez dute euskaraz aritzeko aukerarik ziurtatuta. Izan ere, eremu ez euskaldunetako erakundeak ez daude zerbitzu publikoak euskaraz eskaintzera behartuta.

Horren aurrean, Euskararen Lege berri eragingarria behar dutela adierazi du Alicia Iribarren Erriberako Sortuko kideak: "Nafarroan pairatzen dugun be-



reizkeriaren eragilea hizkuntza esku-bideen zonifikazioa da. Bestelako hizkuntza politika bat nahi eta behar dugu, euskaraz bizitzea posible egingo duena”.

Asmo horrekin sortu zuen Parlamentuak otsailean legeaz arituko den batzordea. Horrelako neurriek euskarari lagundu ahal diotela pentsatzen du Bakerok, baina horrek arrisku bat duela ere esan du: “Aldatzeko aukerak badi-rela uste dut, baina daukagun egoera onartzeko arriskua dago. Jendeak pentsa dezake ondo ari garela eta nahikoa dela horrekin, eta ez da horrela”. Izan ere, euskarak “ausardia” gehiago behar du bere iritziz: “Lan asko dago egiteko eta gizarteak horren kontzientzia hartu behar du, gizarte mugimendu zabal eta indartsua jarri behar dugu martxan”.

Hainbat alderdi politikoren erasoaren aurrean euskaldunek eta euskaltzaleek biltzea erabaki dute Tuteran. Argazkian, 2015ean, 19. Korrikan Argia Ikastolako haurrak lekukoa hartuta.

Antzeko iritzia du Iribarrenek ere. Bere ustez, bestelako errealitate bat saldu nahi badute ere, egun euskaldunok “bigarren mailako biztanleak” izaten jarraitzen dugu: “UPN eta erregimenaren urte beltzak amaitu dira, baina argi eta ozen esan behar dugu aro beltzetik gatzozela, eta edozein urrats oraindik ere oso txiki izaten ari dela”.

Plataformak Erriberako gizartea martxan jartzeko prozesua abiatu du, eta proiektua ezagutzera emateko euskararen aldeko jaia antolatu zuen ekainaren

9an, Tuterako Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren babesarekin.

Tuterako herritarrek ere euskararen kontra?

Ekainaren 9an antolatutako festan euskaltzaleek neurri handi batean erantzun zutela adierazi du Bakerok, eta giroa polita izan zela. Besteak beste, kontzertuez, umeentzako pailazoez, herri bazkariak, eta bertso saioez gozatu ahal izan zuten bertaratutakoek.

Hainbaten irudimena da Erriberako gizartearen zatirik handiena euskararen kontrakoa dela. Plataformaren ustez, bestalde, ez da horrela. Jende asko dago ez dagoena ados edo euskararen alde lan egiteko aktibatuta, baina kontra ere ez dagoena: “Momentuz, guk ez dugu ikusten Erriberako gizartea, gutxienez modu aktiboan, euskararen kontra. Euskararen alde ez dira aktibatzen,

baina kontra ere ez dute egiten”.

Herrian finkatuta dituzten hainbat proiektorekin (AEK, Ikastola...) euskararentzako jendea eta espazioa irabazi dute Tuteran azken urteetan. Dena den, asko falta dela uste du Bakerok, eta horretarako erabili behar dutela plataforma: “Guretzat kristoren lorpena izango litzateke hemendik urte batera, hainbat eragilek, eta noski, norbanakok, publikoki adieraztea euskararekin bat egiten dutela”. Horren harira, euskararen aldeko esfortzuak metatu nahi dituztela adierazi du plataformak. Euskarak irabaziko badu, hein handi batean herritarren lanari esker izango dela uste dute kideek: “Elkarrekin egin behar dugu bidea. Izan gaitetzen eragileak egunero eta leku guztietan, denon ardura da”. ■

BABESLEA: **LEZOKO UNIBERTSITATEKO UDALA**





LEZOn
EUSKARALDJA
bai!



Lezoko Unibertsitateko Udala

Kiropraktika

Garunaren eta gorputzaren arteko komunikazio bidea

Bizkarrezurra da nerbio sistema babesten duena, garunaren eta gorputzaren arteko komunikazio bidea. Jakitun ez garen arren, edozein osasun arazoren iturburua izan daiteke. Hala kontatu digu Xabier Mendiara kiropraktikoak.



Ainhoa Mariezkurrena Etxabe

@xorginkeiak

Hezur-muineko nerbio guztiak gorputzeko atal guztietara iristen dira, zelula guztiak kontrolatuz. Ornoen bat mugitzeak nerbio sisteman eragiten du zuzenean, garuna eta gorputzaren arteko komunikazioa moztuz. Hori gertatzen denean, gorputzaren funtzionamendua kaskartzen hasiko da. Hau guztia azaltzeko, gorputzaren auto-errepazio eta berregituratze gaitasuna azpimarratu dizkigu Mendiara: “Zauri bat egitean, garbi mantenduz gero itxi egingo da. Gorputzak berak sendatzen du. Nik eskumuturreko hezurra puskatu dut eta mugitu ez dadin zerbait jarri didate. Nire garunak beharrezko zelulak sortzen ditu eta beharrezko lekuan jarri hiru hilabete pasata berriro ongi egoteko”. Hori, nerbio sistemaren bitartez kontrolatzen dela dio kiropraktikoak. “Ongi funtzionatzen ez badu, osasun arazoak ekar ditzake: depresioa, ansietatea, lo egiteko arazoak, sabeleko mina...”.

Ornoak lekuz mugitzearen arazoak, ordea, makina bat izan daitezke: postura txarrak, erorketak, estres emozionala... Mendiara estresaz hitz egin digu, gehienbat: “Egun, gizarte honetan, gaitasun gehien sortzen dituen arazoa da estresa. Gaitasun modernoaren oinarrietako bat da. Neurrian ona da,

bizirik mantentzen gaituelako, baina sobera handitzen bada kalteak sor ditzake gure osasunean”. Gaitasunak bizi estiloaren arabera direla dio. Gorputz bakoitzak estresa desberdin jasotzen duela azaldu digu, estres bera bi gorputzentzat desberdina izan daitekeela. Estres egoeretan, nerbio sistemaren bitartez egokituko dugu gorputza; piezaren batek huts eginez gero, egokitze-lan hori konplikatu egin daiteke. Estresa gestionatzen jakitea oso garrantzitsua dela dio Mendiara.

Gorputzaren oreka, funtsezkoa

Kiropraktikak egiten duena da interferentzia guztiak bizkarrezurrean aurkitu eta tratamendu egokiaren bidez arazoa konpontzen saiatu, horretarako nerbio sistema indartuta. Ornoak bere lekura itzultzea, alegia. Egokitze bertebrala deitzen diote. Horretarako teknika ugari daude, 200 baino gehiago. Gehienak eskuekin egiten dira, baina tresnak ere erabiltzen dituzte, presioa egiten dutenak batik bat. “Pistola antzeko bat dugu: angelu batean ipini eta indar bat jartzen zaio. Kolpe batez ornoa mugitzen du”.

Lehenbizi bizkarrezurra aztertzen dute, nerbio sisteman nola eragiten ari den ikusteko. Normalean egokitze bat baino gehiago egin behar izaten da eta

ez du inongo minik ematen. Mendiara zek kontatu digu bezero asko jada osasun arazoak dituztela joaten direla kontsultara: migrainak dituela, nekatuta dagoela, lorik egiten ez duela... Egoera horietan ez dago aurreikuspenarako aukerarik: “Gehienetan konpon daitezkeen arren, batzuetan beste zerbaiten beharra izango da; kirurgia, adibidez. Gure helburua ez da sintoma itzaltzeko zerbait ematea, kausa konpontzeko gorputza orekan jartzea baizik”.

Bizkarrezurraren eraginaz eta garrantziaz jabetzen ez garela uste du. Gorputzaren funtzionamenduaz ezagutza txikia daukagula, baita kiropraktikari buruz ere. Gipuzkoan dauden 20-25 kiropraktikoetako bat da Mendiara. Kontsulta dauka Donostian eta pazienteekin lan egiteaz gain hitzaldiak ematen ditu bertan asteazkenero, edonorentzat eta doan: “Kiropraktikaren beste alor bat da, diziplina hau eta gorputza bera ezagutzera ematea”. Izan ere, Munduko Osasun Erakundeak lanbide sanitario bezala onartzen badu ere, Europako hainbat herrialdetan ez dago doituia, tartean Espainiako Estatuan. Bai, ordea, Frantziako Estatuan, Danimarkan, Portugalen, Suitzan, Italian edota Erresuma Batuan. Zabalduen, dena den, AEBetan dago. ■



BORTXAKETAREN KULTURA KLASIKOA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Grezia. K.a VII. mendea. Himno home-rikoak izeneko poema sortako alerik zaharrena sortu zuten, Demeter jainko-saren berri jasotzen zuena.

Demeter, Kronos eta Rearen alaba, Gea amalurraren oinordekoa zen. Zeus anaiak bortxatu zuen eta, ondorioz, Persefone alaba jaio zen. Persefone ere Hades osabak, azpimunduko jainkoak, bahitu eta bortxatuko zuen.

Alaba azpimunduan gatibu zegoela, Demeter amak Lurra ibili zuen Persefoneren bila. Bitartean, Demeterren beste anaia bat, Poseidon, arrebarren atzetik ibili zen hura bortxatu nahian. Azke-nean, Demeterrek behor itxura hartu zuela ikusirik, Poseidon zaldi bihurtu zen eta bere helburua lortu zuen.

Zeusek erabaki bat hartu zuen orduan: Persefonek, handik aurrera, sei hilabete emango zituen azpimunduan haren osaba eta bortxatzailearekin, eta urteko beste sei hilabete Olinpoan egongo zen, amarekin. Demeterren pozak argia eta bizitza ekartzen zituen Lurrera sei hilabete horietan, udaberrian eta udan. Persefone bahitzailearen azpimundura itzultzen zenean, ordea, tristura, udaz-kena eta, gero, negua nagusitzen ziren. Eta, horrela, intzestu eta bortxaketa zurrunbiloa medio, azaldu zuen greziar mitologiak urtaroen joan-etorria, bizi-tzaren urteroko zikloa.



Luca Giordanoren 'Persefoneren bahiketa'. Persefone Hades azpimunduko jainkoak bahitu eta bortxatu zuen eta hori ez da, inolaz ere, mitologia klasikoko bortxaketa kasu bakarra.

Baina hori adibide bat besterik ez da. Teseok Troiako Helena bortxatu zuen. Kastor eta Poluxek Leuziporen alabak, Febe eta Hilaira, bahitu eta bortxatu zituzten eta gero haiekin ezkondu ziren, Sexto Tarkinio printzeak Lukrezia bortxatu zuen. Filomela, aldiz, bere koinatu Tereok bortxatu zuen. Poseidonek ez zuen soilik arreba eraso, Medusa ere bai. Baina arlo horretan ere Zeus izan zen nagusi; Demeterrez gain, Antiope, Ganimedes, Europa, Leda... bortxatu zituen Olinpoko jainkoen erregeak. Eta

ezin ahaztu, kondairaren arabera, Erromako fundatzaileek Sabinak masan bortxatu zituztela.

Gilbert Higuete (1906-1978) historialari klasizistak esan zuen moduan, "gure mundua Grezia eta Erromaren jarraipena da. Gure jarduera intelektual eta espiritual gehienetan erromatarren bilobak eta greziarren birbilobak gara. Beste eragin batzuek ere lagundu digute garena izaten, baina greko-erromatar bultzada izan zen aberatsena eta indartsuena". ■



EL GRÁFICO

Munduko Kopatik hamar kaletara

1978ko Munduko Futbol Kopa Argentinak etxean irabazi zuen, Buenos Airesko River Plate estadioan. Handik hamar kaletara zegoen ESMA (Escuela Superior de Mecánica de la Armada) eta bertatik selekzioak sartu zituen hiru golen burrunba entzun zen. 1976tik 1983ra 5.000 pertsonatik gora torturatu eta desagerrarazi zituzten eraikin horretan.

Garaipenaren 40. urteurrenean, ESMAtik bizirik irtendako batzuk publikoki gogora ekarri dute egun hartan bizitakoa. Ricardo Coquet ESMAn bahituta izan zuten 1977ko martxotik 1978ko abendura eta, haren hitzetan, "golak oihuz ospatu nituen, kontraesana izan arren", beldur baitziren garaipenak diktadura indartu eta luzatuko zuela. ■

Ux, ux, gaitz eta izurrite



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

ARGAZKIA: INSIDETHEMAKEUPSITE.WORDPRESS.COM

Landareen intsektuek sortutako izurriteak akabatu nahi ditugunean xaboia laguntzaile ona dela esan eta esan gabiltza. Intsektuek ez dute guk bezala gorputzari eusteko barruko eskeletorik. Barrunbeak eta erraiak soilik dituzte soinaren barruko aldean eta kanpoko azal gogorra da beren eskeletoa; “exoeskeletoa” deitzen zaio. Azal hori da intsektuen babes nagusia, eta funtzio ugari du: giharrei eustea, arnasketa egitea, hidratazioa kontrolatzea eta abar.

Xaboiarekin bustitakoan intsektuaren azala ahultzen eta hondatzen dugu; bera babesten duen koipea kentzen du, eta, ondorioz, arnasteko arazoak izango ditu, deshidratatu egingo da, eguzkiak erredurak sortuko dizkio. Era berean, bustitzeko xaboiari intsektizidaren bat eransten badiogu, azal ahulean barrena errazago sartuko zaio barruraino.

Xaboitik nahi adina dago, baina egokiena xaboi potasikoa edo xaboi beltza da. Xaboia egiteko gantza edo koipea eta base bat nahasten dira; “saponifi-



kazioa” deitzen zaio. Gantza, koipe eta olio ugari erabiltzen da, baina basea, gehienetan, soda edo potasa izan ohi da. Sodaren oinarria sodioa da, eta potasarena potasioa. Sodioa elementu zakarra da lurraren bizitzarako. Potasak, berriz, xaboi ahulagoa ematen du, eta, era berean, potasioa landareendako janaria da. Beraz, xaboi bat edo bestea erabiltza, landarearen azpiko lurra hondatu edo elikatu egingo dugu.

Xaboi potasikoa egitea erraza da. Landare olio da oinarria, eta horri errautsa edo potasa erregarria erantsiko diogu. Lehena leunagoa da, eta ekologikoagoa; izan ere, urak eta eguzkiak erraz desegiten dute. Ekin diezaigun ba! Jarri litro bete ur metalezko (ez aluminiozko) ontzi batean, eta gehitu egur errautsa, kilo erdi bat gutxi gorabehera; ondo nahasi

Ur, egur errauts eta olioarekin egiten da xaboi potasikoa. Artikuluan irakur dezakegu nola.

eta egun pare batez utzi. Urak potasio karbonatoa hartu behar du; horren kontzentrazioa neurtzeko, sartu patata bat, erdia uretan erdia airean geratu behar du. Behera badoa, nahasi errauts gehiago, eta utzi beste bi egun. Patataren proba ondo aterata arte. Orduan, gehitu litro bete olio, pixkanaka nahasiz, ore bat egin arte. Labean ondo berotu loditu arte. Xaboi eraginkorra pH-a 8-9 artekoa duena da. Handiagoa badu, jaitsi limoi zarrastada batekin. Erabiltzeko, nahasi pixka bat urari eta ondo busti landarea alde guztietatik, goi eta behe, ezker eta eskuin. Intsektuak akabatu eta gaitzak ere uxatuko dituzu, ux-ux! ■

Basherri

GIPUZKOAKO KONTSUMO TALDE ETA KOOPERATIBAK

info@basherrisarea.eus · www.basherrisarea.eus

HEMENGOA ETA EKOLOGIKOA, GOZATU GUREAZ!





Donostian ere kontsumo kooperatiba sortzeko lehen urratsak ematen



Garazi Zabaleta

@tirikitran

ARGAZKIA: PROIEKTUKO KIDEEK UTZIA

“Donostian kontsumo kooperatiba bat sortzeko eskuak, ideiak, bihotzak... behar ditugu” zioen kartela iritsi zen nire postontzi elektronikora ekainaren hasieran. Bilera baterako deialdia zen, aipatu helburuari begira interesa duen Donostialdeko jendea elkartzea asmo zuena. Oraindik egitasmo berri honen sortze prozesuan daudela zehaztu digu Joseba Parronek, lehen pauso horietan partaide denak. “Guk esaten dugu oraindik habiatxoan gaudela”. Habian, baina habiatik hegan abiatzeko prestaketetan.

Antzeko proiektuak eredu

Oiartzungo eta Bilboko Labore kooperatibetako lagunek egin zieten lehen proposamena donostiarrei azaroan. “Haiek aukera ikusten zuten Donostian antzeko proiektua martxan jartzeko, eta batzuei eta besteei deika, lagun talde bat bildu ginen bileratxo bat egin eta elkar ezagutzeko” dio Parronek. Giza Eskubideen Zinemaldian New Yorkeko Food

Coop kooperatibaren inguruko pelikula proiektatu zutela eta Oiartzungo Laborekoak ere han zeudela arobetxatuz, bertan zegoen jendea bilera ireki batera gonbidatu zuten.

Maiatzean egin zuten lehen bilera hura Uliako Mintegiak parkean, eta 30 lagun inguru elkartu zirela eta proiektua sortzeko interesa bazegoela ikusita, urratsak ematen hastea eta hama-bostean behin elkartzea erabaki zuten. “Orain bisitak antolatzen ari gara inguruan ditugun antzeko proiektuak ezagutzeko, pixkanaka definitzen joateko bakoitzak nola ikusiko lukeen Donostiako kontsumo kooperatiba hori”. Masa kritikoa sortzeko lanean ari dira, proiektua bururaino eramateko jende askoren ekarpena beharko dela aurreikusten baitute.

Agroekologikoa, tokikoa eta soziala

Hiru ardatz horiek adostu dituzte orain arte. Alegia, etorkizunean Donostian sortuko duten kontsumo kooperatiba

www.bizibaratzea.eus

EUSKAL HERRIKO AGENDA

Uztailak 20: Sara

Ekoi zle eta eskulan egileen azoka. 16:30ean Sarako plazan.

Uztailak 20: Gasteiz

Izarren gaua jarduera, adin guztientzat pentsatua. 20:00etan Atarian (Biosfera pasealekua, 4). Atariak eta Arabako Astronomia Elkartek antolatua.

Uztailak 21: Araia

Apollo tximeletaren bila. Aizkorri-Aratz parkean barrena ibilbidea, desagertzeko arriskuan dagoen tximeleta iheskorra bilatzeko. Prezioa: helduek 2 euro eta umeek 1. Izena emateko: 646 478 812 / 688 629 932 telefonoetan edo aizkorriaratz@gmail.com helbidean.

Uztailak 21: Oñati

Oñatiko ingurumena ezagutzeko ibilaldi gidatua. 9:00etan hasita. Izena emateko: ingurumenirteerak@gmail.com.

Uztailak 21: Donostia

Hegaztien bidaiak jarduera. Jolas bidez txori migrariei buruz eta Uliako hegaztiez ikasteko aukera. 4-10 urte bitarteko umeentzat. 11:30ean hasita, Uliako Interpretazio Zentroan.

Uztailak 22: Elizondo

Baztandarren biltzarra. Senidetasun jaia, azoka, herri bazkaria...

horrek produktu agroekologikoak eta tokikoak behar lituzkeela eskaini, eta proiektuak ikuspegi soziala behar lukeela izan. “Batzuek agian indar gehiago jartzen dute ekologikoan, beste batzuek arlo sozialean... Horretan gaude”.

Amaierako helburua ez ezik kontsumo kooperatiba sortzeko prozesua bera ere garrantzitsua da partaidearen ustez. Ahalik eta modu horizontalenean eta irekienean ari dira, eta orain arte parte hartze zabala eta aberatsa izan da: “Oso adin tarte zabaleko jendea biltzen gara, 27-28 urtetik 70 urte bitartearaino”. Presa handirik gabe, pauso txikiak baina seguruak emanez egin nahi dute bidea. “Prozesua bera gozatu eta horretan sakondu”. ■

azoka

NOLA SALDU ZURE GAUZAK AZOKAN: Sartu argia.eus/azoka helbidean, eta klikatu "Saldu" atala. Bost minutuan jar dezakegu edozer salgai Interneten, euskal herritar denen eskura.

ARGIA JENDEARENTZAT MUSUTRUK: ARGIAko kideei zer bait eman nahi izanez gero, badugu aukera. Ostegunero 10:00etan izaten da txupinazoa: ARGIA Jendeak musutruk hartu ditzakegun gaiak publiko egiten diren unea.

www.argia.eus/azoka • [@argiaAzoka](https://twitter.com/argiaAzoka)

Era guztietako **salgaiak** aukeran: ikus-entzunezkoak, mahai-jolasak, argitalpenak, laminak eta mapak, gorputzarentzakoak, bitxiak, eskulangintza, jantziak...

87
salgai

BELARRITAKOAK

Eguzki-lore eta lauburu formako belarritakoak. Tolosako Arteka eskulan dendako salgaiak dira.

Ezaugarriak:

- Eguzki-lore belarritakoak: Altzairuz eta zirkonita morez egindakoak. Neurria: 1,5 zentimetroko diametroa.
- Lauburu belarritakoak: Altzairuz eta esmaltez egindakoak. Neurria: 1,5 zentimetroko diametroa.



30 euro



30 euro

Uztailaren 19an, 10:00etan...

ARGIA Jendearentzat musutruk jarriko ditugu argia.eus/azoka webgunean:

34
gai
musutruk



Bizi Baratzea lamina 15 eta 16

Mattinek eginiko lamina originalak. Neurriak: 35 x 50 cm.



Umeentzako patinak

26-29 neurriko oinentzat. Kurpilak ilaran ditu.



Txiki Muñoz, Aiala Elorrieta, Txetx Etxeberri eta Xabier Anza burujabetzaz mintzatu ziren.

Udako ikastaroak kiroldegitik kanpo



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Spinning, aero zumba, aqua gym, total training eta horrelako ikastaroak antolatuz arrakasta ziurtatuta duzun garai hauetan, geratzen da oraindik ere sistema neoliberalari arrakalak irekitzeko esperantza duen zororen bat. Gorputzari kultura egin beharrean Ekonomia Sozial eta Eraldatzaileari egiten diote, burujabetzari, eta beheko indar txikien metaketari. Ikastaroak antolatu dituzte Robles-Arangiz fundazioak eta UNED-Bergarak elkarlanean, eta kiroldegitik atera ezinda dabilenaren harri-durarako, arrakasta izan dute. ARGIA ere izan da bertan, bere esperientzia kontatzeko.

Nola egin aurre barru-barruraino sartuta dugin neoliberalismoari, geroz eta erabaki gehiago kapitalaren esku gelditzen ari direnean? Zer egin dezake herri batek, komunitate batek horrelako egoera baten aurrean? Zer dago, bene-tan, gure esku?

Robles-Arangiz fundazioko Unai Oñederrak honela azaldu digu: "Gauzak aldatu nahi ditugunok, behetik indarra metatzen joateko garaia da. E-maila zehatzek, garaipen txiek, indarra

metatzen laguntzen dute bai sindikalismoan, enpresa eta lan zentroko hitzarmenen bidez, bai eta arlo sozioekonomiko eta politikoan alternatiba txikien bidez. Burujabetzak lortzeko -lanean, finantzetan, zaintzan, elikaduran, energian, teknologian... bizitzan oro har- komunitatearen beharrei komunitarioki erantzuten joatea da gakoa, modu kolektiboan, demokratikoan, aniztasuna barneratuz eta elkartasunean oinarrituz; bizitza erdigunean jarrita. Eta hori guztia Euskal Herriaren burujabetza proiektuarekin lotu nahi izan dugu".

Ekainaren 21 eta 22an Gasteizko Arte eta Letren Fakultatean antolatutako hitzaldietan modu teorikoan landu dituzte aipatu puntu potolo horiek, baina Euskal Herrian dagoeneko puntu horiek praktikan jartzen ahalegintzen ari denik badago, eta bertara gonbidatu dituzte arlo desberdinetako esperientziak azaltzera. Bertan izan dira Bilgune Feministako kideak, Iruñeko Katakakekoak, XES Herrialde Katalanetako ESE sareko lagunak, REAS Euskadikoak edo Olaturkoopeko kideak eta ARGIA, besteren artean. ■

Sarean arrantzatua


Xabi Murua

@xabimurua

Zein ilusioa egin didazuen ARGIA! Hau duela 3 hilabeteko kontua... eta gaur kamiseta hau ikustea! Bikain! ["Inor ez da ilegal" kamisetaz ari da]



Ekonomia Sozial Eraldatzailea partekatzen



UEUren ikastaroen artean, *Ekonomia Sozial eta Solidarioko erakunde*en kudeaketa ikastaroa egin zen ekainaren 26an eta 27an. Bertan, hainbat eragilek esperientziak partekatu genituen. Irudian, Goienerr.

AGENDA

Balioak eta nortasuna euskal gizartearen eraikuntzan: berrikuntza-plataforma irekiak ikastaroa

- EHUk antolatuta, uztailaren 16 eta 17an izango da Donostian, Miramar Jauregian, 9:00etatik 14:00 aldera arte. Esperientzia hauek azalduko dira: Elhuyar, ARGIA, Ikastolen Elkartea eta Elkar. Matrikulazioa zabalik dago www.uik.eus helbidean.

Eliane Radigue

“Egin nahi dudana musika soinutik harago doa”

Ekainaren 28an kontzertu atipikoa antolatu zuen Tabakalerak *Kinestesia: mugimenduaren logika* programaren barruan. *Occam Delta* plazaratu zuten Julia Eckhardt, Yannick Guédon eta Emmanuel Holterbach musikariek, soinuaren eta musikaren esentzia bilatzen duen lau piezako kontzertua, Eliane Radiguek konposatutako lanak ezagutzeko primerako aukera eskaini zuena: musikari sailkaezin hau hobeto ezagutzeko aukera duzue ondorengo lefroetan, Donostian bere lanak interpretatu zituen Julia Eckhardt-ek egin dion elkarriketaren bidez.

Julia Eckhardt

ARGAZKIAK: ELIANE RADIGUE

Eliane Radigue 1932an jaio zen merkataritza txikiaren familia batean eta Paris erdigunean hazi zen. Musikara eraman zuen bidea ez zen lineala izan; piano ikastaroak hartu zituen Roger anderearekin, zeina biziki maite zuen, baina Armand artistarekin oso gazte ezkondu ondoren Nizara joan zen bizitzera. 23 urterekin hiru umeren ama zen, eta zeukan denbora libre apurrean aritzen zen “brikolaje musikal” gisa deskribatzen dituenak egiten. Irratiaren bidez musika konkretua deskubritzeak –objektuen soinuak grabatuz ekoizten den musika elektronikoa, alegia–, bide oparoago batera eraman zuen. Musika mota honen aitapontentekoak diren Pierre Schaeffer eta Pierre Henryren lanek pixkanaka musika elektronikorantz eraman zuten –sintetizagailuekin eta feedback-ekin lan eginez–, eta musikari akustikoekin kolaboratzera, 72 uterekin.

Elkarriketa hau Eliane Radigueren etxean egin dugu. Maiz joaten naiz bera bisitatzen duela zenbait urtetik. Hasierran nire *Occam*-ean lan egiteko bakaerri zen, gero elkarrekin zenbait pieza sortzeko, eta azkenaldian, bere bizitza konta diezadan, bere sorkuntzak eta go-

goetak. Bere osasunak oraindik horretarako aukera ematen zuenean, elkarrekin bidaia batzuk egin genituen eta, urteetan zehar, nire laguna bihurtu da.

Eliane Parisko 14. barrutiko pisu txiki batean bizi da, distantzia laburrera dago Daguerre kalea non Agnes Vardak “bere” hondartza instalatu zuen *Les Plages d'Agnes* filmerako. Denda txikiak, arkitektoen bulegoak eta liburu-denda txikiak garai bateko Parisen itxura ematen diote.

Bere apartamentuan dauden txatalek interes ugari osatutako bizitza baten berri ematen dute: familia handi baten argazkiak, kulturarekin eta zientziarekin duen interesa islatzen duten liburuak eta aldizkariak, zenbait koadro eta eskultura, eta landare asko. Elianek butaka bat du bere txoko finkotzat entseatzen dugunean eta nahitaezko tea hartzen dugunean. Baita hitz egiten dugunean ere.

Nola deskubritu zenuen musika konkretua?

1950eko hamarkadan izan zen, nire haurrak oraindik txikiak ziren. Goizez zaintzen nituenean, irratia entzuten

nuen. Nizan bizi nintzen, aireportutik gertu. Garai hartan, sei hegaldi zeuden egunean, horietako bat distantzia luzeko hegaldiak egiteko hegazkin handi bat, gauez Saigonera hegan egiten zuena. Abioiek oraindik helizeak zeuzkaten eta soinu oso interesgarriak egiten zizuten. Batzuk eta besteak desberdintzeko gai nintzen. Gustatzen zitzaidan hegazkinak entzutea; jolasa bezala zen. Egun batean irratian entzun nuen Pierre Schaefferren eta *Étude aux chemins de fer*-en emisio bat, musika konkretua.

Aurkikuntza horren ondoren, zorioneko kasualitate baten bidez Pierre Schaefferrekin aurrez aurre egon zinen eta musika konkretuko ikasketetan onartu zintzatela eragin zuen horren. Han Pierre Henryrekin ere kolaboratu zenuen.

Bai, han hasi nintzen zinta magnetikoa moztan. Biek lan egiten genuen, Pierre Henryk zinta motzarazten zidan. Alaka luzeak egiten ikasi nuen, moldaketa zuzenak edukitzera iristeko; baita oso laburrak ere, atakeak lortzeko. Gauza asko ikasi nuen Pierre Henryrekin. Pierre Schaeffer gauez etortzen zen, egin genuen lanaz informa geniezaion.



Gero *feedback*-ekin ere lan egin zenuen eta 1970eko hamarkadatik aurrera, AEBetan egon zinenen ezagutu zenituen sintetizagailuekin hasi zinen konposatzen. *Kaliasha* da lan horietako bat, zeina *Trilogie de la Mort*-en bigarren zatia den; ARP sintetizagailuarekin egina dago, hori izan zen zure instrumentua urte askoan.


Bai, baina *feedback*-ekin lan egin nuen denbora-tarte guztian soinu-proposamen deitzen nien, ez neukalako gogorik eztabaidatzeko hori musika ote zen ala ez, zeren konpositore izateko musika egin behar da. Nik ez nion nire buruari konpositore deitu nire lagunek banintzela adierazi zuten arte.

Duela 15 urte ia, instrumentu akustikoekin aritzen diren musikariekin kolaboratzen hasi zinen. Lehenbizikoa *Elemental II* izan zen eta ondoren hiru *Naldjorlak*-en zikloarekin. Lehen impresioa da, soinu jarraitua dela bi garaiak lotzen dituen.

Soinu jarraitua bitarteko bat da, ez bere horretan helburua. Egin nahi dudana musika soinutik harago doa. Konexioak daude. Hala ere, zintzoki uste dut ezin izango nuela garatu orain egiten dugun musika hau ez banu lehenago pasa musika elektronikoaren fase luze hura.

2011n hasi zenuen *Occam*-en ziklo amai-gabea, zeinean lehenbizi musikari bakoitza ezagutzen duzun solo batekin, gero elkarrekin piezak osatzeko. Zure pieza akustiko guztiak ez dira transmititzen partitura idatziekin, ahoz eta irudi bidez baizik. Zein da ziklo honen ideia?

Lehenbiziko ideia olatuak dira. *Occam Océan* serieko lehenbiziko inspirazio-iturria sortzen da deskubritzen dudanean, 1970eko hamarkadan, Los Angelesko Historia Naturaleko Museoa, zinta luze bat, zeinak errepresentatzen zituen ezagutzen diren uhin elektromagnetikoen luzerak, Lurretik eguzkirainoko uhin-luzeratik X izpietaraino, Gamma izpietaraino eta abar; amaierarik gabe, izan ere, bi mutur hauetatik harago geratzen dira Lurretik planeta urrunenetaraino dauden uhin-zabalerak, gure astro beneragarriak bere antzekoekin eduki ditzakeenak eta are gehiago; eta proiektatzen da infinitu bat, zeinak oso xume bihurtzen dituen ezagutzen ditugun eta erabiltzen ditugun uhin luzera guztiak,



ARP sintetizagailuarekin lan egin izan du denbora luzez Radiguek eta duela 15 urtera arte ez zen hasi instrumentu akustikoak jotzen dituzten musikariekin kolaboratzen.

» “Soinua errespetatu behar den bizitza autonomo gisa ulertzen dut”

» “Musikan interesatzen zaidana ezin da haztatu, neurtu ezin dena da, teorizatu ezin dena, horregatik da oso zaila horretaz hitz egitea”

» “Bilatzen dut arintasun hori, eramaten gaituena soinuaren magia moduko batera, pertzepzio guztiak zorrozten dituen”

baita 60-100 hertzeko gune fimiñoa eta gure belarriak soinu bihurtzen dituen 12.000 hertzak, edo 300.000ko gunearen espektroa, argi gisa hautematen duguna eta kolore gisa interpretatzen duguna; kontuan hartu gabe gure espezieak erabiltzen dituen uhin-luzera ugari eta anitzak; misteriotsuak dira, garen ezjakin ez-espezialista guztientzat, VLF, UHF... eta beste asko, bertigoa sentitzeraino... Horregatik *Océan* “transposizioa”, irisgarriagoa delako gure pertzepzio-gaitasunentzat... Ufa!

Lan egiten dugunean zure mantra bat da eskuragarri egon behar dela. Zer esan nahi duzu horrekin?

Musika honekin inoiz ezin direla gauzak behartu. Ez da musika bat zeinean hobe den ahalik eta gehien jotzea. Jakin behar da gelditzen. Eskuragarri egotea da guztiz irekita egotea, prest egotea sortzen den eta sortzen duzun soinu-ebentorako.

Alegia, egitura hor dagoela, baina egitura horren baitan, neurtezina den horrek guztiak garatu behar du eboluzioa, soinuaren garapenak. Ondo doanean, hor geratzen gara, artikulazioa aurkitzen dugu, kateatzen dugu jarraian datorrena momentu egokian. Baina problema txikiren bat baldin badago, bada, beno, jarraian datorrenarekin artikulazioa azkarrago aurkitzen saiatzen gara. Hori da eskuragarri egotea, norberaren izaeran eskuragarri egotea. Soinua errespetatu behar den bizitza autonomo gisa ulertuko banu bezala da. Interesatzen zaidana ezin da haztatu, neurtu ezin dena da, teorizatu ezin dena; horregatik da oso zaila horri buruz hitz egitea.

Musikan bilatzen duzuna nola deskribatuko zenuke?

Gustatzen zaidana laburbilduz esango dut: da arintasun hori, eramaten gaituena soinuaren magia moduko batera, zeinean pertzepzio guztiak zorrozuta dauden, baita fisikoki ere, maila guztietan. Musikak esaten ditu hitzek esan ezin dituzten gauza asko, ezta poesiararen bidez ere. Poesia da gehien gerturatzen dena. Poesiak esaten du erabiltzen dituen hitzek esaten dutena baino gehiago, zeren, hitz berak hartzen badituzu eta beste ordena batean jarri, zerbait esan nahi badute ere, segur aski jada ez dira poesia izango. ■

Raisa Alava

Bizitza berrirako alfabetoa



Xabier Gantzarain
@gantzarain

Uztailaren 6ra arte egon da Bilboko La Taller grabatu tailer eta galerian *Ride The Lightning* erakusketa, hainbat teknika grafikorekin egindako lanak eta zeramika lanak biltzen zituen, bitxia eta ederra. Lekua bera bezala.

Kuriosoa da, ondorioak ateratzeko azkarregi bada ere, joera nabaria da, gazteen artean bi dimentsiotako lanak dira nagusi, marrazkia, arte grafikoak, pintura, eta haietatik eratorri daitezkeen hibrido guztiak, edozein formatutara ekarriak. Kartelgintzan maila izugarri ona dago oro har, diseinu grafikoan gauza benetan ederrak egiten dira.

Gaztea da Raisa Alava Robina (Aiara, 1990eko urriaren 28a). Garai batean arte munduan gutxietsita bezala egon diren esparruetatik dator, komikitik, ilustraziotik eta zeramikatik, eta ezagun du bost axola zaiola bestek esateko dutena, bere zoroak bizi duela, egitea gusztatzen zaiola, marraztea, bere mundua sortzea, edo munduari beste alfabeto bat eskaintzea.

Liluratu egin ninduen artistaren zintzotasunak. Ahizpari buruzko egunkari bat egin omen zuen txikitan, sekula egin



ABCDE (2018)

Digitalean koloreztatutako marrazkia paper gainean. 50 x 70 cm

duen gauzarik onena omen da, hala aitortu zuen elkarrizketa batean. Gustura ikusiko nuke egunkari hori. Ardo botilen etiketak diseinatzeko enkargua entxufez etorri omen zitzaion, ardo ekoizle eta banatzailea baitu familia.

Liluratu egin ninduen alfabetoak. Hizkiekin eta hitzekin esan ezin dena esateko sortua da, dudarik gabe, baina baita hizkiekin eta hitzekin esaten dena ez

esateko ere. Bestelako mundu eta bizitza baten aukera badagoela gogorazten duen alfabetoa da. Bere izate eta presentzia hutsak nire hitz hauek alferrikako bihurtzen ditu, axaleko, arinkeria, apaindura. Bizitza hor dago, irudi horretan, alfabetoan, ez hitzotan.

Azkenean, ibili-ibili eginda, beti osatzen da izaki bitxi eta fantastikoen komunitatea. ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Jirafa bat korrika



Xabier Etxaniz Erle

Patxi Zubizarretak XXIX. Ala Delta sari prestigiotsua eskuratu du ipuin honekin. *Korri, Kuru, korri!* ipuin honek hasierako esalditik harraipatzen du irakurlea: “Imajinatu aurrena jirafa bat anbulantzia... *ni-nooo, ni-nooo...* Imajinatu hurrena animalia amaigabea, ohatila batean, ospitale bateko larrialdietan sartzen (...) imajinatu orain jirafa zu zeu zarela eta ospitaleko korridoreetan barrena zoazela”. Bai, jirafa hori Nora delako, lurrean zegoen botila bat ikusi ez eta hanka bihurritu duen neska. Boxerretan dago, oraindik ere inauterietako jirafa mozorroa kendu gabe alboko boxerreko haur bat hizketan hasi zaionean. Eta alboko haur horrek, Kuru-k, zer gertatu zaion kontatu baino, “beste zerbait kontatuko nizuke gusturago, jirafa baten benetako historia, adibidez. Ez da horren tristea eta lagundu egiten dit buruari zutik eusten, betiere burua gora”.

Eta horrela Kuruk jirafa baten historia kontatuko dio Norari, lepo luzea duen animalari ketxine izena ematen dioten Etiopiatik abiatuta Sudan, Egipto eta Mediterraneo itsasoa zeharkatu ondoren Frantziaraino egindako bidaiarena, (bertan, besteak beste Altzoko Handiarekin duen enkontrua kontatzen zaigu).


Eta kontakizun horretan ahozko kontakizunetako egitura eta esaldi errepikakorrak erabiliz idatzizko eta ahozko narrazioen arteko zerbait eskaintzen digu Zubizarretak, “joan, joan eta joan”, jirafaren lepo gero eta handiagoaren neurriaz eginiko konparaketak txirula, makila, arrauna... erabiliz; edo eta atal

Korri, Kuru, korri!

PATXI ZUBIZARRETA

Irudiak: Rebeca Luciani.
Ibaizabal, 2018.
87 orrialde.
Haurrentzat.

Patxi Zubizarreta Dorronsoro
idazlea (Ordizia, 1964).



guztietan, jirafaren historia kontatzen dizkiguten kapituluen amaieran bertso moduko bat, zailtasunei eta eragozpenei aurre egiteko indarra emanez, eta azken lerroan: “Baina betiere burua gora”, Kururi bere bizitzan aurrera egiteko kemena ematen dion esaldia.

Izan ere, azken atalean ikusi ahal izango dugun bezala Kuru, jirafa hura bezala, bidaiari ari da, zailtasun, traba, muga eta eragozpen handiak gaindituz eta sufriz. Kamioi batetik erori eta hanka hautsita dago boxerrean, eta

Noraren laguntza beharko du bidaiari aurrera egiteko. Hori bai, bera harrapatu eta berriro Afrikako lurraldeetara bueltatu nahi dutenengandik ihesi, korrika.

Istoria miresgarria da, jirafa baten bidez distantzia jartzen duena, konparaketa baten bidez distantziak laburtzen dituen eta gozatuz barnea hunkitzen digun istorioa. ■

» DISKOA

Mugarik gabeko rocka



Joxi Ubida Goikoetxea

Zozo taldeak lehen diskoa kaleratu du, lan ederra. Post-rock eta hardcore kutsuko doinuak jotzen dituzte, adore, grina eta kemen handiarekin. Mugarik ez duen rocka da azken batean, soinu eta zarata bitxiz osatuta.

Gitarra, baxu eta bateria indartsuak, doinu errepikakorrak, distortsioa, esperimentazioa, oihuak eta aieneak entzun daitezke kanten. Erritmoak sendoak dira, eta bat-bateko aldaketak eta mozketak gertatzen dira. Kantak oro har biziak dira, eta batzuk poliki edo lasai samar hasi arren, barealdiaren ostean laster ekaitza etorriko da edo eromena ageriko da.

Funtsean giroak sortzen dituzte. Egoerak dira, gogo-aldateak. Kanten bidez ezinegona, frustrazioa, haserrea eta amorrua transmititzen dute: "Hondarrezko erlojutik amiltzen gara" (*Submarino Faraday*), "Gizarteak lapurrak sortzen ditu gauero, elikatzen egunero" (*Errobi*), "Soldatapeko lanak zorrotzak ditu labanak bizitzeko denbora kentzen diguna, kementa ta adorea ta irten hadi zulotik ta apurtu loturak" (*Tripalium*), "Nere gorpua lurra iren-tsi dezala, putre ta arratoiek goza dezatela, ez dut nahi lorarik, ez dut nahi eskelarik, ez dut nahi hilobirik" (*Ipuin errotikoak*), "Behin ta berriro, etengabe bide bera ibilarazten gaituzte, legeetan idazten dihardute makurtu ta nora begiratu behar ez den" (*Andolf*),

Astigarragakoa da Zozo taldea. 2016ko irailean egin zuten lehen kontzertua. Ander Merino (bateria), Jon Agiriano (baxua), Andoni Olaetxea (gitarra), Fermin Mendazona (gitarra) eta Beñat Irazusta (ahotsa) dira talde-

Zozo

Zozo

Autoekoizpena, 2018.



kideak. Gazteak, baina ez hasiberriak, Blaka, Morphina, Goragaleak, Pelax, Hirugabebi, Desein eta Rukula taldeetan aritutakoak baitira. Trebeak beren tresnekin, zer egin nahi duten argi dute.

Ekoizpena ongi burutu dute Martxel Arkarazorekin Garate estudioetan, kantak ozen entzuten baitira, energia handiz. Soberan egon litezkeen apaingarririk batere gabe, kantak janzteko gitarra marrazki batzuk, eta soinu eta zarata batzuk bakarrik erabil dituzte.

Pozik egoteko moduko diskoa egin dute, eta, dudarik gabe, jendaurrean ikusteko moduko taldea da Zozo. ■

Astigarragako Zozo taldea zuzeneko emanaldi batean.





Ongarri bihurtuta datoz

KONPOST TALDEAREN KONTZERTUA



Malen Aldalur Azpillaga

@malenaldalur

ARGAZKIA: AXIER LOPEZ

Kalea guztiona da horma marrazteko ekintzaren baitan. Noiz: uztailaren 6an. Non: Zumaian. Hurrengo mural pintaketak: uztailak 13, ostirala, Grace of Dionysus taldearen disko berriaren aurkezpena. Uztailak 21, larunbata, Son. Lt doinu latino dantzagarriak.

Post hondartza kontzertu polita eskaini zuen Sanfermin egun bezperan Konpost talde gasteiztarrek, Zumaian. Arratsaldeko 19:30ean egin zuten hitzordua Erribera kalean. Azken denboran pisu handia hartu duen kalea da herrian. Dagoeneko gutxi izango dira Zumaia muralen berri eduki ez dutenak; makina bat izan dira bertan marraztu dituzten aldarrikapenak, baina mural guztiak batzen ditu aldarri bakar batek: *kalea guztiona da*.

81. murala margotu zuten ostiralean Konpost taldeak kontzertua eskaintzen zuen bitartean. Muralaren aurrean txukun jarri zituzten instrumentuak eta bi aldeetara garagardoa eta “*Kalea guztiona da*” aldarria zeramatzen kamisetak. Laster hasi zen jendea hondartzatik bueltan kalearen bi aldeetan elkartzen.

Konpost taldeak bere bigarren kontzertua eskaini zuen Zumaian, baina argi geratu zen euren ibilbidea ez zela duela kontzertu bat hasi. Izan ere, es-

perientzia handiko lagun koadrila ari-tu zen zumaiarren belarriak goxatzen: Txerra Bolinaga RIP taldeko bateria, Bingen Mendizabal Hertzainak taldeko biolina, Jon Aranburu Stockhom S. taldeko gitarra-jolea eta Ruben Sanchez bertsolaria. Lagun artean sortu omen zuten Konpost, eta kontzertua hasi orduko nabari zen hori. Tonu jostarian hasi zuten kontzertua, Sanchez abeslariak Osakidetzako bata soinean zuela.

Musika entzun orduko hasi ziren 81. murala egiten Koldo, Olatz eta Eneko. Haurrek lehen lerroan lotsagabeki mugitu zituzten gerriak eta buruak, helduegoek erritmoa jarraitzeari muzin egiten zioten bitartean.

Post rock moduan deskribatzen dute beraien musika eta euren abestiak zein bertsioak jotzen dituzte. Astelehenari edo euskal presoen egoerari abesten diote modu kritiko eta ausartean, zenbait kasutan txistua edo andaluz erako txaloak jotzera ere ausartuz.

Espaloia okupatuz jo zuen Konpost taldeak, herritarrek kalea hartzen zuten bitartean. Eta horrela, aldarrikapena izan zen nagusi “beste bat, beste bat” eskariaren atzetik jotako abestietan. Gasteizko mugimendu sozialari erreferentzia eginez Zumaia-koekin elkartasuna adierazi zuten, *Gasteiz rules* abestia moldatu eta *Zumaia rules* bihurtuz. Azken abesti honekin jendea kantuan jarzea ere lortu zuten.

Kontzertuaren zurrunbiloan sartuta eta *Zumaia rules* esaten zuten bakoitzean *fuck the power* erantzuten gogotsu genbiltzan bitartean, ia ohartu ere ez ginen egin Erribera kaleko 81. murala bukatu zutela. Zenbat kapa dituen dagoeneko Erriberako hormak!

Konposta egin eta ongari bihurtuta dator dudarik gabe Konpost talde gasteiztarra, eta hala erakutsi dute alkatearen baimenik gabe Zumaia-ko Erribera kalean eman duten kontzertuan. 81. aldiz birziklatu dute horma. ■

Egilea: Ana Zambrano

Hitz gezidunak

Gaia: Animaliak mitologian

① ARRAIN MOTA	OTZANTA-SUNEZ, BARE GIZARTEARI DAGOKIONA	JAINKO HINDUISTA ANPEREA	PASARTE BARREGARRI LABUR GAZTAINON- DO-IKATZ	DAUKAZU	BURU EGIN BASOKO EGURGINTZA	JOTZERA BEHARTU GRENADAKO BIZTANLE
BETEBEHAR (ALDERAN- TZIZ) AZKAZAL		② MEHATXU		ALEX ... KANTARIA UMOTASUNEZ		
			NARRASTI EZKATADUN KONBEN- TZITU			
ZINEMA BOKAL ERRE- PIKATUTA		KONPARAZIO- ATZIZKIA 60 MINUTU		EUSKARRIA GORPUTZARI DARION ISURKARI		
	ARTOZKO AHI LODI SAIHESTU, IHES EGIN				ZEREZ ATZIZKIA LEUN BIHURTU	
OSMIOAREN SINBOLOA	"... ERREGEA", SHAKESPEA- REREN OBRA	BELAUNALDI	④			
	PARTAIDEA, LAGUNA ZEURI			NIREA EDARI ALKO- HOLIKO		⑤
RRIKA, GOGO BIZI LASTER, AZKAR		URETAN BIZI DENA ZALANTZA PARTIKULA			OINARRIZKO EDARIA ZUHAUR (AL- DERANTZIZ)	
		LURRAK DITUENA ZIRKO- NIOAREN SINBOLOA			POTENTZIA KONTSONAN- TE BIKOITZA	
NAFARROAKO HERRIA ENPARAU			ANGELU KILOA			
				EGURRA		

Jokoa ebazteko lagungarri izango dituzu definizio hauek:

① Oso herrikoia da. Ihauteri eta festa askotan bere moztorro eta historioak Pirinioetan nonahi azaltzen dira. Ez da inoiz izaki gaiztotzat hartu. Hezitzaileek emanaldia egiten zutenean, lehen ikuskizuna ume gaixoentzat izaten zen. Bere



BERNARD-BOEHNE

bizkarrean zangalatraba umea ipinita, umeak urrats batzuk eman behar zituen. Horrela sendatu egingo zela uste zuten.

② Bizkaian umeari hortza erortzen zaionean, animalia honi bota eta honela esaten dute: ".../ Eutsi hagin zaharra/Ekatzu hagin barrie/... barragarrie".

③ Animalia honek oparotasuna adierazten du, eta horregatik erditzean lagundu egiten duela uste da. Bere azala kutuna da. Lapurdiko gazteek sakelean animalia honen hondakinak zituen poltsatxoak edukitzen zuten. Horrela, soldadutzara ez joateko zenbakia aurrez jakiten omen zen.



FAFNER

④ Sakratutzat hartzen da. Etxeko jauna hiltzen zenean, erlauntzako estalkia eskuaz jo eta honako esaten zitzaian Zuberoako Liginagan: "Jatzar zite, buruzagia hil zaizie".

⑤ Euria laster dela adierazten du. Begiratzen dietenei pozoia botatzen diela uste da. Medikuntza herrikoian kutun-gisa erabili izan da.

Ebazpenak

G			A			O		A		A		A		B		H
A		E	R		U	S		A		Z		R		A		O
I		N	I		K	I		L		I		M		T		A
N		E	T		U	D		E		N		O		A		A
E		R	Z		L	R				A		A		G		A
A		K			U	T		G		O		A		G		G
O		D			I	R		E		K		M		U		D
		I			E	N		A		O		I		U		B
Z		U			D	R		U		A		S		A		J
		R			O	P		R		A		E		G		O
A										I		R		O		J

Laura Berro. Iruñean, berdintasunaren talaiatik



Uztailaren 4ko goizean zazpi graduako lurrikara izaten ari zen Iruñeko Udaletxean elkarrizketa egiten ari ginen bitartean. Bere bulegoa, ordea, bare-bare zen artean. Eguerdian jakin zen albistea: Aranzadi eta Ezkerra Udal Gobernutik kanpo ziren. Aranzadiko zinegotzia da Berro eta Berdintasuna eta LGTBI saileko arduraduna zen elkarrizketa egiten ari ginen bitartean. Dagoeneko oposizioan da.

“Iruñeko Udal Gobernu Taldea nahiko feminista da”



Xabier Letona

@xletona

ARGAZKIAK: JOSU SANTESTEBAN

Shock doktrina

“Iruñean jaio nintzen 1986an. Publizitatea eta Harreman Publikoak ikasi nituen Opuseko Unibertsitatean, baina era guztietako lanak egin ditut: umeak zaindu, tabernan zerbitzari, saltzaile Landabengo igandetako azokan... eta lau urtez Eguzki bideoak kooperatiban ere bai; ARGIArekin ere izan genituen elkarlan proiektu batzuk. 17 urte nituenetik nabil herri mugimenduetan: Azpilagainako auzo asanblean, Rosa Negra taldean, mugimendu feministaren bueltan edo PAHn. Udaletxean hasi ginenean *shock* handiko unea bizi izan genuen bertan nola aritu ikasi arte”.

Ez dakit argi dagoen: eraso sexista gehiago dago edo salaketa gehiago?

Salaketa gehiago. Mugimendu feministak eta gizarteak oro har lan handia egin dute azken urteetan, eta horren ondorioz emakumeak ahaldundu egin dira, salaketa gehiago jartzera ausartuz.

LGTBI munduan ere salaketa gehiago entzuten da. Antzeko kasua da.

Bai, berdintsua da, baina kasu honetan oraindik zailtasun bat gehitzen zaio, mundu honetan erasoak salatzeak esan nahi baitu agian armairutik ere atera behar dela. Harrotu zentroarekin ikerketa bat egin dugu gaiak eta gauza interesgarriak atera dira. Adibidez, LGTBI umeak oso ohituak daude biolentzia jasatera eta erasoak normalizatzen hartzen dute, oso berenganatua dute. Emakume askorekin ere gertatzen da hori, baina LGTBI kasuetan gehiago.

Sanferminetara kanpotik datozeinei ohar-tarazten zaie errespetuz joka dezatela. Kanpokoan jartzen da indarra.

Sentimendu hori zaharra da, eta iaz beberen egon zen. Deserosoa egiten da

onartzea zure lagunak, familiartekoak, ingurukoak direla emakumezkoen erasotzaileak. Hala ere, hemen ez dago beste toki batzuetan baino eraso gehiago. Erasoak orokorrak dira, maila globalean emakumeen aurkako biolentzia legitimatzen da, menpeko nahi gaituztelako.

Txupinazoan beltzez joateko sare sozialan egon zen deialdi hura bai izan zen eztabaidatua, baita arbuatua ere.

Guk ez genuen bat egin deialdi harekin, baina zilegi iruditzen zait. Egia da erasoak urtean zehar ere badirela eta ez dela fokoa bakarrik Sanferminetan jarri behar, baina herritar asko oso haserre dago eta uste dut ekarpen bat egiteko gogoak zegoela proposamen haren atzean. Ez zen ongi bideratu hemengo mugimendu feministarekiko, baina ez dut uste asmo txarrez egin zenik.

Zeinek finkatzen ditu irizpideak, udalak edo mugimendu feministak?

Elkarlanean egiten dira, baina mugimendu feminista aspaldi ari da lanean eraso gaiarekin eta baditu lerro estrategiko batzuk. Haiek diskurtso indartsua



jartzen dute eta udaletik oihartzun egiten diogu, horrela asko zabaltzea lortuz.

“Bakarrik eta mozkortua etxeratu nahi dut”. Neska gazteek gehien errepikatu duten oihuen artean dago.

Bikaina da. Beti beldur mezuak luzatzen zaizkigu neskei: “Zaindu, kontuz...”. Beldurrean hezi gaituzte eta neska gazteak aski dela esaten ari dira, libreak garena eta erabateko lasaitasunez itzuli nahi dugula etxera.

Udaletxea nolakoa da berdintasunean?

Lan handia du egiteko. Gauza asko egin dira, baina gatozen lekutik gatoz eta feminismoa UPNrentzat “*vade retro Santanás*” izan da. Udaletxea gizartearen isla ere bada eta Iruñean aurrera egiten ari den gisan, hemen ere bai, baina oso urruti gaude berdintasuna lan esparru guztietan zeharkakotasunez ikustetik.

Eta Gobernu Taldea?

Oso aurreratuta dago aurreko legealdiko Gobernu Taldearekin konparatuta. Nahiko gobernu feminista da, baina ezkerrean bazen goiburua klasiko bat

“Ni zezenketen aurkakoa naiz, baina Aranzadin badira aldekoak eta, beraz, talde gisa ez dugu jarrerarik hartu zezenketekin”.

“lehenengo komunismoa eta gero feminismoa”, eta hemen ere gertatzen da halako zerbait.

Eta Aranzadi?

Denak berdina izan gaitezen bilatzen dugu, asanblada da gure oinarria, horizontalitatea, baina gizarteak dituen hainbat joera gurean ere badira. Berdintasunari buruzko hausnarketa prozesu bat egiten ari gara eta oso interesgarria izaten ari da, oso pozik nago. Hala ere, bestelako jatorri bateko jendea ere falta zaigu eta horrek kezkatzen gaitu.

Ezkerreko alderdi batean, kargu instituzionalak legealdi baterako, bi...?

Aranzadik kode etikoa argia du: lau urte eta kito. Beraz, legealdi honekin niri bukatu zait.

Eta gustatuko litzaizuke errepikatzea?

Alde batetik bai, hasieran *shock* handia

izan zelako udal jardueran aritzea, ez genduelako instituzio hau ezer ezagutzen eta dagoeneko asko ikasi dugulako. Baina bestetik, guk ikasi dugun hori ondoren etor daitezkeenentzat oso baliagarria izango da, gu laguntzen arituko garelako.

Era guztietako pertsonen festan begirunea merezi badute, zergatik ez animaliek? Zezenek adibidez?

Hala da, bai, ez da zilegi XXI. mendean animalien sufrimendua gure gozamenarako erabiltzea. Ni zezenketen aurkakoa naiz eta hauen aurkako hainbat manifestazioetan parte hartu dut, baina gaia konplexua da Iruñean. Ni aurkakoa naiz, baina Aranzadin badira aldekoak eta, beraz, talde gisa ez dugu jarrerarik hartu zezenketekin. Eztabaida kalera atera behar da.

Aranzadi egongo da datorren urteko udal hauteskundeetan?

Talde bera ezin da aurkeztu, hautesle elkargo bat delako eta hauek behin bakarrik aurkez daitezkeelako. Baina gure proiektua ordezkatuko duen zerbait hor egongo da. ■



Entzierroa lurretik bueltaka osatu du Neymarrek

Txupina lehertzean erori da lurrera Neymar futbolari brasildarra, entzierro guztiak aurrealde-aurrealdean hasten dituen burusoil txikitoak belarrira putz egin eta gero. Santo Domingon gora larri ibili da, zezen gorrixkaren adarrak bizkarrean, baina tinko eutsi dio bereari. Udaletzeko plazan maisuki egin die iskin Asironek gai-


nera bota dizkion Aranzadi eta Ezker-rako zinegotziei. Mercaderesen egin ditu txiribueltarik ikusgarrienak, korrikalarien artean zeuden espazioak baliatuta. Estafetan denbora izan du lurretik bueltaka zebilela Ahotsa.info -ko adituei BAR teknologia kontsultatu zezaten eskatzeko. Ez zuten ezer ikusi. Literalki.

SAREAN ARRANTZATUA

Argi alu horiek!



Urriko urtarilaren ostean dator



AHTren kafetegiak Donostiako Parte Zaharreko prezioak izango ditu, obraren gastua "ahalik eta azkarren" berreskuratzen

Donostiako Ambrosio tabernak lortu du Abiadura Handiko Trenaren kafetegiko adjudikazio publikoa. Eusko Jaurlaritzak kontuan hartu ditu taberna horretako prezio astronomikoak esleipena ematerako orduan, izan ere, Lakuako iturrien arabera, bidaiariei kobratuko zaien dirutzarekin AHTren obrek aurrekontu publikoetan eragiten duten zuloa azkarrago betetzea espero dute. "Europako Kontu Auzitegiak ez zekien kafetegi hori jarriko gendue-

nik, eta horregatik egin dute txosten hori, esanez AHT ez dela errentagarria. Baina kañak Donostian bezala kobratuz edozein obra faraoniko pagatzeko adina diru aterako dugu hilabete gutxian mwahahahahahaha!", adierazi du Jaurlaritzako iturri batek. Gainera, aste honetan jakin denez, Euskal Y-ak arre-ta psikologikoa eskainiko die trenean bertan, kafetegian eskatu dutenagatik baserria hipotekatu beharko duten bezero guztiei.



Amul been nit ku leegalul

Atera
aldarria
kalera
euskaraz
eta wolofez!

inor
ez
da
ilegala

Kamiseta
bakoitzeko 2 euro
Mbolo proiektura
bideratuko dira.

Bilboko migratzaileak
martxan jartzen
ari diren garbiketa
kooperatiba da Mbolo.

Erosi ARGIAren Azokan:

azoka.argia.eus | azoka@argia.eus | ☎ 943 371 545

15€



artea
eta

mitoa

PRADOKO
JAINKOAK

2018ko uztailaren 7tik urriaren 28ra

Erakusketa
San Telmo Museoa



MUSEO NACIONAL
DEL PRADO 200 AÑOS



Obra Social "la Caixa"

STM
San Telmo Museoa



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura

EUSKO JAURLARITZA
KULTURA ETA HEZKUNTZA
POLITIKA GARA



GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Elizabetea
Foru Aldundia
Kultura, Hizkuntza, Gaiak
eta Legearen Departamentua



GRAN
KULTURA